




Ordiziako euskal jaia 100 urte



Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

ick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 20

Izen ematea

Irailaren 6tik 10era
Arratsaldeko 6etatik 8etara



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK




BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



FREELANDER BERRIA **NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA**

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierrirako zerbitzua: ANZIZAR
Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Iñaki Ugalde, Iñaki Hidalgo eta Landarlan.

Azaleko argazkia: BKE argazki artxiboa.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria

goierriko

hitza

Goierriko Hitzaren '0' alea kaleratuko da irailaren 11n *Etxe etxe banatuko da Goierri osoan*

Oporren aurreko GOIERRITARRAN adierazi genuen Goierriko euskalgintzak Goierriko Hitza egunkaria sortzea erabaki zuela. Proiektua aurrera doa poliki-poliki eta irailaren 11n lehenengo emaitza ikusiko da. Izan ere, egun horretan, larunbatean, Goierriko etxe guztietara Goierriko Hitza egunkariaren ale bana iritsiko baita. '0' alea deitu zaion hau, udazkenetik aurrera etxeetan dohainik jasoko den produktua-
ren aurrerapena izango da. Goierritarra Kultur Elkartea, Zintzo Mintzo eta Euskarazko Komunikazio Taldeak elkarlanean aurrera eramandako proiektua da.

Goierriko albisteak jasoko ditu Goierriko Hitzak, euskara hutsean, asteartetik igandera. Euskararen normalizazio bidean urrats handia izango da Goierriko Hitza. Horretaz gain, goierritarroi zerbitzu ezberdinak eskainiko dizkien egunkaria izango da.

GOIERRITARRA aldizkaria etxean jasotzen duzuenok, Goierriko Hitza ere jasoko duzue, kontrakorik adierazten ez baduzue behintzat.

Udazkenetik aurrera, 10 langilez osatutako lantaldea arituko da, teknologiarik aurreratuenarekin, eguneroko albisteak biltzen. Egunkaria banatzen arituko den taldea ere beste hainbestekoa izango da.



Goierritarra aldizkaria berriturik

Goierriko Hitza sortzearekin batera, GOIERRITARRA aldizkari berritua sortuko da. Hamabostean behin banatzen jarraituko du. Atal eta gai berriak landuko ditu GOIERRITARRAK. Egunerokoaren osagarri izango da.

Dena den, hurrengo aleetan joango gara Goierriko Hitzaren nondik norakoek xehetasunak kaleratzen. Baita, GOIERRITARRA aldizkari berriarenak ere.

Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Udalbiltza auziagatik

Urko Irastortza lazkaotarrak Auzitegi Nazionalean deklaratu du

Baltasar Garzon epaileak deituta, irailaren 2an Auzitegi Nazionalen deklaratzekoa zen Lazkaoko Urko Irastortza. Udalbiltza auziaren barruan, inputatu gisa deklaratzera deitu du Irastortza, beste 10 kiderekin batera, talde armatuko kide izateaz leporatuta. Lazkaon, Irastortzari babesla agertu eta egoera salatzeke hainbat mobilizazio egin dira egunotan Lazkaon. Herriko zinegotzi ohia (Euskal Herritarrok) da Irastortza.



Goierriko gida industrial berria argitaratu du Goiekik

Uztailaren 21ean aurkeztu zuten Goiekin Goierriko hirugarren gida industrial. Felix Urkola Goiekiko lehendakariaren esanetan, gida honen helburua, "bizi garen eskualdeko industria-sarea bertan nahiz nazioartean ezagutzera ematea da, horrela, industria-ren sektoreak bertako ekonomia-bizitzan duen garrantzia handia islatuz. Industria-enpresek, eskualdeko enpleguaren %45 osatzen dute eta horri esker, langabezia tasa %5etik beherakoa da".

CAF:

Erromako metrorako trenak

Beasaingo CAF enpresak, Erromako metrorako 198 bagoietatik 33 bukatu ditu. 2002ko abenduan sinatu zen lan hau egiteko kontratua eta 2004ko abuzutuan iritsi dira lehenengoak. Datak egoki bete direnez, beste 6 tren gehiago egiteko (36 bagoi) hitzartu dute CAFek eta Erromako Udalak. 42 milioi euroko balioa izango du kontratuak.



Bittor Oroz, Ataungo alkatea: "Marumendin ez dago ezer eraikitzeke proiekturik"

Eusko Jaurlaritzak uztailaren 13an onartu zuen Aralar Parke Naturaleko Natur Baliabideak Antolatzeke 1994ko Plana aldatzeke dekretua. Marumendin bordak egiteke aukera, Imatzenean ura botilaratzeko aukera eta Erremedion balnearioa berreskuratzeko aukera uzten du dekretuak.

Jaurlaritzaren erabaki hori salatzeke, prentsaurrea eman zuten uztailaren 20an EHNE sindikatuak eta Aralar Izadi Natur Taldeak. "Aralar batere babesik gabe" uzten duela adierazi zuten. Joxe Ramon Agirre 'Marron' ataundarrak azpimarratu zuenez, "Lareoko urtegiaren ingurua zoragarria da, benetan erakargarria edonorentzat, baita hotel bat egin nahi duen enpresaburuarentzat ere. Halako azpiegitura bat egiteak izugarriko triskantza eragingo luke ingurunean, benetan ahula baita hango fauna eta landareztat, eta araudiaren aldaketa horrekin bidea libre gelditzen da".

Argazkian ikus daitekeen bezala, Ataungo alkateak ere prentsaurrea eskaini zuen uztailaren 22an, gai inguruan esandakoak argitu eta gezurtatzeko. Ataundarrak behin eta berriz azpimarratu zuenez, "Jaurlaritzak onartu duen aldaketak proiektua ahalbidetu besterik ez du egiten. Ez dago momentu honetan inongo proiekturik Marumendin ezer eraikitzeke. 25 egurrezko borda 10,5 hektareatan sakabanatuta, gehienez ere 4 metroko altuerakoak, eta inpaktua gutxitzeko ura, argi indarra eta sa-neamendua lurperatuta joatea onartzen du dekretuak. Beraz ez da onartu ez frontoirik, ez igerilekurik, ez beste inolako azpiegiturarik. Marumendin ez dago edozer egiteke aukerarik. Egunen batean proiektu zehatz bat auziteko balitz, baimena eman aurretik plan berezi bat, ingurune-inpaktu azterketa eta Parkeko Zuzendaritzaren baimena beharko lituzke". Orozek gaineratu zuenez, "gure ustez, Natur Baliabideen Antolamendu plana aldatzea ez da txarra bere horretan. Arduraz eta zentzuz eginez gero, posible da herri txikiek ditugun garapen beharrak eta naturak beharrezko duen babesla uztartzea".



Erdi Aroko Interpretazio Zentroa irekitu dute Seguran

Erdi Aroa modu didaktiko eta ulermen errezekoan ezagutzeko aukera dugu Segurako Ardixarra etxeko hirugarren solairuan. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa inauguratu zuten uztailaren 30ean, Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuordea bertan zela.

Hiru atal nagusitan banatzen da erakusketa. Historia atalean, hiribilduen fundazio prozesua, Europa eta herriadeko mapak, Hiribilduen fundazioak Gipuzkoan, Santiago Bidea eta Fundazio dokumentuak biltzen dira. Hirigintza atalean, XV. mende bukaeran Seguraren hiri morfologia azaltzen duen bideo birtuala eta maketa (azken hau oraindik jartzeko dago), harresia, trazaketaren morfologia, orubeen lur-zatiketa... gaiak lantzen dira. Hirugarren atalean azkenik, bizitza soziala eta etxe-arkitekturaren inguruko gaiak azaltzen dira: Kontzejuko mahaia, talde sozialak, kofradia eta gremioak, bandoen arteko borrokak, XV-XVI. mendeetako Gipuzkoako emakumezkoen arropak, arkitektura zibila eta espazio publiko eta pribatuaren arteko borrokak.

XVI. mendeko etxea da Ardixarra eta ingurune natural batean kokatu dute segurarrek Erdi Aroko Interpretazio Zentroa. Etxea bera ere ikusteko aukera dago horrenbestez, eta baita Segurako historia laburbiltzen duen sei minutuko ikus-entzunezkoa ere.

Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 19:00etara dago irekita eta larunbat eta igandetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Taldeen bisitak hartzeko, aurrez txanda hartu behar da, 943801006 telefono zenbakira deituta.



Patxi Telleria, agur

Abuztuaren 14an hil zen Patxi Telleria, Lazkaon bizi zen gaintzar soinu-jolea. GOIERRITARRA aldizkariaren kolaboratzaile fina, erromerietako kontuak kontatu zizkigun azkenekoan. Agindu bazigun ere, idatzi gabe utzi dizkigu, On Joxe Migel Barandiaran zenari buruzko hainbat kontu. Patxiren senitartekoei atsekabea lagun.



Elurretan musika taldeak bideo-klipa grabatuko du *Extrak behar ditu*

Irailaren 6an eta 7an, Ordiziako Elurretan musika taldeak bideo klipa grabatzeko asmoa du, Ordiziako Herri Antzokian eta Sugaar tabernan. Bertan parte hartzeko extra bila dabilta: 16 eta 25 urte bitarteko neska-mutilak behar dituzte. Gitarra jotzen zertxobait jakitea baloratuko dute. Dena den, ez da derrigorrezko baldintza. Bertan parte hartu nahi dutenek, www.elurretan.com web orrian eman behar dute izena.

Ormaiztegiko Trenzubiak 140 urte bete ditu

1864ko abuztuaren 15ean inauguratu zen Ormaiztegiko Trenzubia, Isabel II. erregina Madrildik Donostia-ra zeraman trenarekin. Madril-Paris trenbideko obra honen egilea Gustave Eiffel dela uste izan bada ere, Olazti-Beasain arteko lanak zuzendu zituen Alexander Lavelleyk eraiki zuen.

Estetika eta ingeniaritza lan metaliko handia da. 18.000 tona pisu, lau pilare gainen ditu. 289 metro luze. Bere gehieneko altuera, 30 metrokoa da.

Balio estrategiko handikoa izanik, gerrak izan ditu etsai nagusiak. 131 urtez etengabe erabili ondoren eta hasieran aurreikusitako trafikoa izugarri gehitu zenez, 1995eko uztailaren 1ean, beste trenzubi batek ordezkatu zuen, aurrerapen teknikoaren eskakizunak zirela eta.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saileko Ondare Historiko-Astistiko Zuzendaritzak Ormaiztegiko Trenzubia Kultur Ondare izendatu berria du.



Abuztuaren 22an etxeak zuen egoera ezkerrean. Eskuinean, berriaz, txukunketa lanak egiten ari zirenean, abuztuaren 26an ateratakoa da.

Gaztetxea sortzeko helburuz

Beasaingo Piztu Gazte Asanbladakoek Udalaren etxe bat okupatu dute

Duela hilabete inguru Piztu Gazte Asanblada sortu zen Beasainen eta Gaztetxea sortzeko helburuarekin, bertako Udalarena den etxe bat, Antzizar kiroledegia atzean, okupatu zuten abuztuaren 22an, "Udaletxeak bota nahi duen eraikuntzetako bat, okupazioaren harri mintari helduta, gaztetxe bihurtzen dihardugu", diote Piztukoek. Txukuntze lanetan harrapatu genituen Piztukoak eta abuztuaren 28rako iragarrita zegoen manifestazioa prestatzen.

Etxearen behe aldea hartu dute, goiko partean Beasaingo Udalaren kamioiren bat sartu-irtenean ibiltzen omen da eta. Sasiak kendu, garbitu, margotu... Gaztetxea egokitzen aritu dira lehen egunetan. Gau eta egun da gazteak bertan, "edonor etor baitake gu ateratzera". Pizturen helburua, "gazteek lokal bat, espazio bat izatea da. Urte askoan eskatzen aritu izan dira belaunaldi ezberdinetako gazteak. Orduan, okupatzea erabaki zen, gure esku hartzea".

Patxi Plazaola alkatea abuztuaren 25ean hurbildu zen Gaztetxera. Bilera baterako deia luzatu zien gazteei eta aste honetan bertan egitekoak ziren. "Lokala hutsik zegoela eta egokitu besterik ez dugula egin esan genion".

Asanblada bidez hartzen dituzte erabakiak, autogestioa bultzatzen. "Gune aske bat sortu nahi dugu, gazteon helburuak gauzatzen".

Abuztuaren 28an manifestazioa antolatu zuen, 'Herri bat, Gaztetxe bat' lelopean.



Saharar hurrei agur festa Zegaman eta Seguran

Aurtengo uztail eta abuztuan 120 saharar haur izan dira Gipuzkoako familietan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen, Lan eta Gizarteratze Sailak, aurtengo lehenengo aldiz, haur guztiak elkartu eta agur festa eskaini zien abuztuaren 26an, Zegaman eta Seguran, Mari Karmen Marin diputatua bertan zela. Marinek adierazi zuenez, "beharrezkoa zen Gipuzkoara etortzen diren haur guztiak bilduko dituen festa bat antolatzea, datorren urtera arte agurtzeko eta Saharari gipuzkoar gizartearen elkartasuna adierazteko". Goizean Zegaman izan ziren jolascan, zezen mekanikoan eta puzgarrietan. Ostaturun bazkaldu ondoren, arratsaldean Seguran osatu zuten, igerilekuan.

Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetako haurrak dira Gipuzkoara etorri direnak. 8 eta 14 urte bitartekoak.

Garabi gidarien lanuztea

Aurtengo abuztuan ezohiko irudia ikusi dugu Goierriko errepideetan: matxuratutako autoak edo istripua izandako autoak, bide bazterrean. Garabi gidariak egindako lanuztearen ondorioa izan da. Lerro hauek idazterako garaian, aseguru etxeekin konponbidera iritsiak ziren eta bide bazterretako ibilgailuak erretiratzeko hasi ziren. Garabi gidariei, zerbitzuko 20-24 euro ordaintzen zieten eta tarifa horren igoera eskatzeko hasi zuten lanuztea uztailearen 27an.



kutxa

gizarte ekintza



Beasaingo Zelan tabernan dardoetan internetez jokatzeko aukera

Dardoen munduan lan handia egiten ari da Beasaingo Zelan taberna. Orain aukera bat gehiago jarri du bezeroen eskuetara: interneten bidez, munduko beste edonorekin dardoetan lehiatzeko aukera. Gipuzkoan horrelako makina jarri duen lehenengo taberna izan da Zelan. Makinaren azalpenak ematerakoan Miguel Montorok adierazi zuenez, "lehiatzeko beldur direnentzat, lanagatik taldeka elkartu ezin daitezkeenentzat aukera ematen du". Txartel bidez funtzionatzen du makinak. Argia da benetan makina eta tranpak egitea ez da batere erraza. Beasaindarrek, oraindik behintzat ez dute aurkitu. Bi kamara ditu makinak, jokalaria nortasuna ziurtatuko duena eta dardoa botatzeko marra errespetatzen dela ziurtatzen duena. Esteban Lasa kallean dago Zelan taberna.



Iazko irabazleak.

Lazkao Txiki Bertsopaper lehiaketako irabazleak

Irailaren 12an, eguerdiko 12etan, Ordiziako Barrena Kultur Etxean egingo da XIII. Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketako saribanaketa. Argi Berri Elkarteko presidentea, Lazkao Txikiren iloba Mari Jose eta Ordiziako alkatea izango dira saribanaketa. Bertso sarituak kantatutako dituzte irabazleek. Ondoren, haмаiketako izango dute.

Jarraian dituzue, mailaz mailako irabazleen izenak:

Gaztetxoak (13 urte artekoak): 1. Jon Zurutuza (Ataun), 2. Mikel Dorronsoro (Ataun) eta 3. Iñaki Dorronsoro (Ataun).

Gazteak (14-18 urte artekoak): 1. Nekane Zinkunegi (Errezil), 2. Alaia Martin (Oiartzun) eta 3. Oier Aizpurua (Zarautz).

Helduak (19 urtetik gorakoak): Bigarren saria bakarrik banatuko da. Ourretako Iñigo Legoburuk jasoko du.

Goierriko komunikazio proiektu berri baterako lanpostu hauek bete behar dira

BANATZAILEAK BUZONEATZAILEAK

Goierri, Urretxu-Zumarraga eta Legazpirako.

Lan baldintzak:

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

GAUEKO BANATZAILEA

Goierriko

Lan baldintzak:

- Egunean 4 ordu.
- Gaueko 23:30etatik 3:30etara.
- Astean sei egun. Astelehenetik larunbatera.
- Kotxea beharrezkoa da.


TOLESTATZAILEAK

Beasainerako

Lan baldintzak:

- Egunean 2 ordu.
- Gaueko 12:00etatik 2:00etara.
- Astean sei egun. Astelehenetik larunbatera.

Interesatuak deitu lehenbailehen 943304308 telefonora



5. Mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatzea

Iraunkortasunaren

12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritze-ko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkuntza.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoaren aurrean.

Irisgarritasuna

Gaur egungo gizartean istripuz edo gaitasunez mugitu eta komunikatzeko gaitasuna murriztuta duten pertsona asko eta asko dago, gero eta bizi iraupen handiagoa izanik. Askotan, bizitza sozialean eta komunitarioan sartzea eta parte hartze eskubidea zaildu eta eragotzi egiten duten oztopo fisiko zein komunikaziozkoek pertsonak era normalean moldatzen ez dute uzten. Beraz, irisgarritasun baldintzak hobetzeak bizi kalitate hobea ekarriko du ondorio gisa, bai mugitzeko eta komunikatzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonentzat bai eta gizarte guztientzat ere.

Mugigaitasuna edo mugikortasuna

Gaur egun Euskadin dugun ingurumen arazorik larrienetako bat mugikortasunaren neurri gabeko hazkuntza

da. Ibilgailuen trafikoak eragiten duen poluzio atmosferikoa eta hiri eta herri gune gehienek dituzten zarata arazoak gero eta gehiago ari dira hondatzen herri eta hirietako bizi kalitatea. Denok ezagutzen ditugu baita ere gure errepi-deetan gertatzen diren auto pilaketak eta istripuak, hiri eta herri handienetan aparkatzeko arazoak. Guzti hau mugikortasuna ibilgailu pribatuaren bidez gauzatzen delako da neurri handi batean, egiten diren distantzien % 73 garraibide mota horrekin egiten direlarik. Azpiegitura gehiago eraikitzea zenbait kasutan soluzioa izan daitekela pentsatzen badugu ere, behin eta berri gainezka egiten dute mugikortasuna hazi ahala. Horregatik administrazioaren aldetik nahitaezkoak dira ekimen publiko handiagoa eta kudeaketa hobea.

Gaur egungo gizartea gero eta berekoiagoa da, norberaren arrakastak bakarrik du garrantzia. Bi kotxe eduki baditzaitez, eta aldiz bakarra baduzu, gizajo hutsa zara. Hori da irizpidea.

Jose Saramago



... zer egin dezakegu?

soa, osasungarria eta merkea da.

- ➔ **Autoa hartu aurretik**, pentsatu benetan behar dugun ala ez.
- ➔ **Ingurumena gehiago zaintzen duten garraibide alternatiboak erabili beharko genituzke.**
Garraio publikoa: merkeagoa eta seguruagoa izan ohi da, eta, maiz, azkarragoa.
- ➔ **Oinez edo bizikletan ibili:** ero-

➔ **Auto bakar bat erabili hainbat lagunen edo auzokoen artean** ibilbide bera egin behar badugu lanera, eskolara, unibertsitatera edo erosketak egitera joateko.

➔ **Arduraz gidatu!** 90 Km/h -ko abiaduratik gora, bat batean azeleratuz eta frenatuz gidatzen badugu, autoak erregai gehiago kontsumitzen du eta CO2 gehiago botatzen du.

Datorren alean eredu gehiago

Oilakarana, zumalakarra ezagutzen

Frangula alnus Miller (*Rhamnus frangula* L.) (Arraclán; Bourdaine) Izenez ezaguna egiten zaigun landare honekin, mendian kukuarekin gertatzen den bezala, gertukoa egiten zaigu, baina gutxi ezagutuko luke te aurrean izandakoan.

Gure historiaren parte dugun Zumalakarri jeneralaren abizenaren jatorrian agertzen den zuhaitzxo honek funtzio anitz betetzen ditu gure ingurumenean, lur mugimenduak ekidin, itzala eman, uraren iragazgarritasuna erraztu, putzuak sortzea eragotzi...eta abar luze bat.

Garai hauetan fruitu moduan, gerezi moduko bolatxo beltz batzuk agertzen ditu, eta bertako faunaren elikaduran garrantzi handikoak dira. Batik bat, hegaztien kasuan, non udazken aldera askok beren dietak aldatzen dituzten, intsektu jale izatetik, hazi eta fruitu jale bilakatzen direlarik. Zumalakarraren fruituak negurako erreserbak izatea eskaintzen diete, indartsu mantendu eta datorren udaberrira gorputzaldi onean iristeko ezinbestekoak.

Aipatutakotik at, badu beste erabilpenik. Hemendik, hauen landaketak bultzatzea nahi genituzke, beraz, horiek gerturatu asmoz, hemen dituzue deskribapen eta azalpen batzuk.

Deskribapena

Zuhaixka hau 3-4 metrotaraino iritsi daiteke. Adarrak ez dituzte arantzarik. Hostoak sinpleak, bakunak eta erorkorrak. Lore txikiak, ia nabarmen ez direnak. Fruituak



txikiak eta borobilak, aurrea gorristak eta beltzak heldutakoan.

Gipuzkoan duen hedaketa

Gipuzkoako edozein lekutan aurki dezakegu, baina nahiago ditu karerik gabeko lurzoruak, areatsuak baldin badira, hobeto.

Ugalketa nola egin

Haziak oso erraz ernetzen dira udazkenean ereinez gero. Udaberrian ereinda urtebete itxaron behar da erneta ikusteko. Sustraie-tatik ematen dituen altsumetatik ere ugaltu daiteke, baina adarrak ahulak izan ohi dira horrelakoetan. Ez da erraza mintegietan aurkitzea.

Erabilerak

Azaletik purga indartsu bat eta koloratzaile gorria ateratzen da. Hegaztiak fruituak jan eta haziak banatzen dituzte. Adarrak saski-gintzarako erabiltzen dira. Ametz lekuetako heskaietan, lurzoru areatsuetan, ezin dira falta izan.

Mantenu eta zainketa

Inausketa ongi jasaten du oilakarak, baina hobia da bere horretan hazten uztea.

Hazkuntza

Nahiko bizkor hazten da eta urte gutxitan iristen da heskaiaren tamainara.

Manex Aranburu

"Bertako faunaren
elikaduran garrantzi
handikoak dira"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Ozeano Pazifikoa plastikoz beteta:** Ozeano Pazifikoko gune batzuetan zooplanktona baino sei aldiz plastiko gehiago dagoela ikusi dute ikertzaileek. Plastikoa arazo latza da ingurumenerako. Izan ere, urazaletik gertu flotatzen du, eta arrain eta hegazti askok jan egiten dute elikagaia delakoan. Plastikoa metabolizatzeke gai izan ez, eta pilatu egiten da animalia askoren urdailean. Horretaz gain, plastiko batzuk konposatu toxikoak ere izaten dituzte, hala nola, PCBak. Eta Kantauri Itsasoan, noizko horrelako ikerketak?

✓ **Nafarroako Parke Eolikoetako erregulazioa aldatuta:** Hainbat Parke Eolikoetan izandako ingurumen arazoez arduratuta, Nafarroako Gobernuak meurri zuzentzaileak martxan jarri ditu. Horien arabera, salbuespenez, Parke baten barruan edo Parke desberdinen arteko aerosorgailuen lekualdatze edo ordezteak baimen ditzake. Aldaketa horien onarpena, Parkean instalatutako potentziaren gehikuntza suposa dezake, Parkeko jabea kaltetua izan ez dadin.

✓ **Klima aldaketaren aurkako aseguratik ez dago:** Suizako Swiss Re aseguratza konpainiak, mundu mailako bigarrenak, txosten batean dio, beroketa globalak sortutako kostuak urtero bikoiztuko direla eta aurki jasanezinak izango direla (gaur egun urtero 150.000 milioi dolar dira).

2004/2005eko EUSKARA IKASTAROAK

SIÓ...
BAI?

Eskaintza: EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK, ALFABETATZEA,
ETORKINENTZAKO HARRERA IKASTAROAK.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK: Administrazioa, Osakidetza, Irakaskuntza, EGA.
Internet bidezko ikastaroak.

Orduak: Astean 10 ordu / Astean 8 ordu / Eskaerari egokitutako ikastaroak.

Ikasturtea: 2004ko irailaren 15etik 2005eko ekainaren 23ra.

Matrikulatzeko epea: Irailaren 1etik 17ra.

Bulego ordutegia: Goizez: 09:00-13:00 / Arratsaldez: 15:00-18:00

Beka sistema.

BEASAINgo UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, z/g | 20200 BEASAIN | Tel.: 943 02 81 00
zuzendaritza@beasain.net

ARAMAKO TABERNA

Aramako plazan

Tel.: 943 888 953

*Toki lasaia eta
giro euskalduna*

Udako terraza aparta!

Eguneroko menua 8 euro kafearekin

Asteburuetan menu berezia 20 euro

Udan terrazako menua 10 euro

**Otartekoak
Pintxoak**

**Plater konbinatuak
Bataioak**

**Jaunartzeak
Laneko afariak e.a.**

Anton Abbadia Euskal Jaien aita

1853an Urruñan lehen euskal Lore-Jokoak antolatu zituen

Anton Abbadia zientzilari eta euskaltzale zuberotarra izan zen Euskal Jaien edo Euskal Lore-Jokoen sortzailea. 1853. urtean, Lapurdiko Urruñan antolatu zuen lehenengo Euskal Lore-Jokoa. Herri-kulturaren esparru guztiak biltzen ziren bertan, dena den, olerkia eta euskara ziren oinarri.

Euskal kultur mugimenduaren sortzaile eta sustatzailerik izan zen Anton Abbadia (Dublin 1810-Paris 1897). Jaiotzez irlandarra zen. Aita Ürrüxtoikoa zuen eta ama, berriz, irlandarra. Parisen fisika eta geografia ikasketak egin zituen. Zientzilari izateaz gain, euskaltzalea ere bazen. Aitarengandik jaso zituen euskara eta euskaltzaleatasuna. Agustin Xahorekin euskal gramatika bat egin zuen. Frantsesez idatzi arren, euskarari buruzko lanak egin zituen. Euskararen alde idaz-

tearekin batera, hizkuntzaren teknikaren eta euskal obren azterketa egin zuen. Gazteengan euskara sustatzeko, euskaraz ondoen egiten zuten haurrentzat sariak ematen zituen.

Euskal Lore-Jokoak

Euskal Lore-Jokoak, gaur egun Euskal Jaiak bezala ezagutzen ditugunak, antolatu zituen Anton Abbadiak. 1853tik 1863ra Urruñan. 1864tik 1876ra arte Saran. Jarraian etorri ziren Donapaleu, Elizondo, Maule, Irun, Markina, Urnieta... 1904an Ordizian antolatu ziren eta 1911n Seguran.

Okzitaniatik eta Kataluniatik hartu zuen Anton Abbadiak, Euskal Lore-Jokoak antolatzeko eredua. Okzitaniako Tolosan egin ziren lehenengoak, 1324an, po-



Ordiziako Euskal Jaiak mende hasieran.


baldu ziren. Literatura eta batez ere poesia bultzatzeko egiten zen lehiaketak ziren lore-jokoak.

Lehiaketara aurkeztutakoen artean obrarik onena festa-giroan aukeratzeko zen, kantuz ematen zen. Sari garrantzitsuak banatzen zirenez lan asko aurkeztu ziren. Pilotapartidak, irrintzi lehiaketak, korrika lasterketak eta ganadu feriak ere antolatzen ziren. Ipar Euskal Herrietik Hegoaldera hedatu ziren Lore-Jokoak. Hila eta baztertuta zegoen euskaltzaleatasuna pizten lagun zuten.

Urteekin, Euskal Jaiak birmoldatzen joan dira. Hasiera batean literatur festak izaten baziren ere, pixkanaka, jai folkloriko bihurtzen joan dira, ganadu eta nekazaritza inguruko lehiaketekin nahastuta.

esia probentzala bultzatzeko. Katalunian XIV-XVI. mende bitartean antolatu ziren, baina XIX. mendean berpiztu eta Iberiar penintsula osora za-

ARANTXA
bodegoia



☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA



Filipineta, 13 - behea

ORDIZIA

☎ 943 88 49 50

ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENAKO ERAIKUNTZAK:
ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

Duela 100 urteko Ordiziako Euskal Jaiak

Irailaren 15etik 20ra ospatu ziren

1 904. urteko iraila urte gogoangarria izan zen Ordiziarentzat. Irailaren 15etik 20ra bitartean, Euskal Jaiak antolatu ziren lehen aldiz. Udalak garrantzia handia eman zion ospakizun honi. 1903an Batzorde berezia sortu zen guztia antolatzeko. Herria txukuntzeko lanak kontuan hartu gabe, Euskal Jaietan 6.000 peztega gastatu zituen Udalak.



tzea erabaki zen, Urdaneta kalea asfaltatu zen, espaloiak konpondu, Arboleda inausi, pilotalekuko zorua konpondu... Udaletxea bera ere, Batzar Aretoa zehazki, konpondu eta txukundu zuten. Euskal Jaiak hasi aurreko astebe- te lehenago, Udalak, herrian zeuden zuritu gabeko etxeen

jabeei agiri bana bidali zien, beharrezko ziren konponketak egiteko, bestela Udalak berak egingo zituela, baina jabeen kontura.

Herriko bandera berria ere erosi zen. Lorenzo Pujanari dantzari txikiak prestatzen hasteko ardura eman zitzaion. Azpeitiko atabaleroarekin eta dultzainarekin, Donostiako ttuntuneroekin hitz egin zen, su artifizialak lortu ziren. Herria apaintzeko ikur- rinak, banderatoak eta apaingarriak eskuratu zituzten. Irailaren 18, 19 eta 20rako, tren zerbitzu berezia hitzartu zuten ordiziarrek 'Compañía del Ferrocarril del Norte' rekin.

Duela 100 urteko egitaraua

Irailaren 15ean, ostegun batez, hasi ziren Euskal Jaiak. Nekazal makina, tresna eta lanabesak erakusgai jarri ziren.

Irailaren 16an, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Nekazaritza eta Abeltzaintza lehiaketan parte hartuko zuten abere eta nekazal produktuak aurkeztu ziren.

Irailaren 17an, larunbatean, hasi ziren Euskal Jaietako ekintzak, goizeko 6etan, Udal Bandaren dianarekin, eta txistulari eta dultzaineroen kalejirarekin. Goizeko 7etan, Nekazaritza eta Abeltzaintza txapelketa hasi zen.

Arratsalde partean, 5etan, Udal Gorporazioak harrera egin zioten tren geltokian. Salustiano Iturrioz zen garai hartan Ordiziako alkate. Diputatu jaunak, Euskal Herriko Usadioaren Festa Batzorde Eragileari, 'Euskal-itz Jostaldien Baztarreko' bokalak eta beste agintariak etorri ziren Ordiziara. Udaletxeraino segizioa egin zuten, dultzainero, Udal Banda, ttuntunero eta dantzariak lagun zituztela. Arratsaldeko 7etan, kanpai bueltekin batera, meza izan zuten elizan parrokian. Tolo- sako Orfeoia, salbea abestu zuen.

laser depilazioa - mikropigmentazioa - zelulitisaren aurkako tratamendua
emaztegaien makilajea - masajeak

**ESTETIKA
ZENTROA**

JOSUNE

☎ 943 882 888 Faxa: 943 886 973
J. M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA e-mail: centrojosune@yahoo.es

Arantxa
Lentzeria

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3

☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta **ORDIZIA**
☎ 943 88 72 76

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

Iluntzeko 8,30etan, argi festa izan zen. Udaletxeko faxadan argiztapen berezia jarri zuten.

Irailaren 18a, igandea, izan zen Euskal Jaietako egunik garrantzitsuenak. Goizeko 6etan, Udal bandaren diana-
ren ondoren, dultzainero, ttuntuneroak, erraldoiak eta buruhandiak kalez kale ibili ziren. 8etan, Nekazal eta Abeltzantza lehiaketara aurkeztutako produktuen erakusketa ireki zen. 182 partehartzaile izan ziren. 5.671 pezeta banatu ziren sarietan. Bertako txekorrak eta zezenak, kanpoko bigantxa eta behiak, bigantxa eta behi mestizoak, zaldiak, astoak, txerriak, artabereak, oilarrak, oiloak, antzarak, ahateak, usoak, konejuak, nekazal makinak... denetik izan zen Ordizian erakusgai.

Goizeko 9,30etan, agintari-
ek prozezioa edo segizioa egin zuten, elizaraino. Bonifazio Lasa artzapezpikuak eman zuen meza. Sermoia Resurreccion Maria Azkuek egin zuen, euskaraz. Tolosako Orfeoiak eta Kandido Elorza organojoleak lagundu zuten meza. Eguerdian, Tolo-



sako Orfeoiak euskal kantak abestu zituen.

Eguerdiko ordu bietan, Diputazioak eskainitako bazkari ofiziala egin zen. Arratsaldean, Nekazal eta Abeltzaintza Txapelketako sariak banatu ziren.

Arratsaldeko 6etan, euskudantza dantzatu zuten agintari-
ek. Gizonezkoak fraka eta eskularru zuriak jantzita. Aurrekua Salustiano Iturrioz alkatea izan zen eta atzeskua Vicente Loidi diputatua. Bikote gisa, Infantodoko Duke-
sa eta Alkatearen emaztea izan ziren. Soka Ordizia eta inguruko pertsonaje ospetsuek parte hartu zuten. Ja-

raian, Lorenzo Pujanaren ardurapean izan ziren dantzari txiki-
en jarduna izan zen.

Arratsaldeko 7etan, Udal bandak, ttuntuneroak eta Azkoitiko dultzaineroak alaituriko dantzaldi herrikoia hasi zen. Irrintzilarien txapelketa ere jokatu zen.

Eguneko ekitaldiak, arratsaldeko 7,30etan bukatu ziren, Donostiako 'Euskaldunon Fedea' antzerki taldearen lanarekin.

Irailaren 19an, astelehenean, goizeko 9etan, Udaletxeko Batzar aretoan, 'Euskal-itz Josaldien Batzarreko' sariak banatu ziren. Literatura eta

musika sariak ziren hauek. Haurren artean, euskarazko irakur lanak bultzatu nahi ziren. Bi haur bakarrik aurkeztu ziren lehiaketara.

Ondoren, plazan, ttuntuneroen txapelketa jokatu zen eta Bergarako ttuntunero bandak irabazi zuen.

Goizeko 11etan pilota partidak jokatu ziren.

Arratsaldeko 4etan, Gipuzkoan lehenengo aldiz, Zuberoako Maskarada aurkeztu zen zuten zuberotar dantzari-
ek Ordizian.

Arratsaldeko 7etarako, haur abesbatzen lehiaketa zegoen iragarrita, baina talde bakarra aurkeztu zen.

Jarraian, bertsolari txapelketa jokatu zen. Pello Errota eta Txirrita izan ziren irabazle. 40 pezetako saria jaso zuten.

Urdanetan jai egun bezpera zenez, kanpai bueltakoak izan ziren. Musika banda eta gaiteroak ere aritu ziren. Su artifizialak ere bai.

Irailaren 20an, Fray Andres de Urdaneta izan zen protagonista. Bere Isidoro Uribealgok egin zuen eskultura inauguratu baitzen.

HERTZA taberna

Goizeko 6etatik irekita

- ◆ Eguneko menua
- ◆ Pintxoak
- ◆ Plater konbinatuak

Ordiziar guztioi jai zoriontsuak!

943 160 471

Rezola kalea z/g ORDIZIA



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28

☎ 943 16 02 48

ORDIZIA



Komunitateen administrazioa

Kol. Zerb. 599

Urdaneta 52-behea. Ordizia.

Tel.: 943 087 486

635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

Ordiziako Euskal Jaiei mendeurrena

Urrira bitartean hainbat kultur ekitaldi antolatuta dituzte ordiziarrek

Irailak 2, osteguna:

19:30ean: Goierriko artisten erakusketa Ehunate Arte Taldeak antolatuta, Sanperio kalean.

Irailak 3, ostirala:

19:00etan: Koldobika Jauregi eskultorearen erakusketa, Barrenan, urriaren 29ra arte.

Irailak 4, larunbata:

11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara: Haurren parkea, Plaza Nagusian.

10:15ean: 'Ordizia Euskal Jaiak 1904-2004' bertso jaialdia, Herri Antzokian. Aitor Mendiluze, Alaitz Sarasola, Aitor Sarriegi, Mikel Mendiabala eta Jon Maia.

Irailak 5, igandea:

Erretiratuaren eguna:

9:00etan: Diana trikitilariak.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: Trikitilariak.

14:15ean: Erretiratu eta pensionistentzako bazkaria. Segidan dantzaldia.



Iazko elkarte arteko lehiaketa gastronomikoa.

Irailak 7, asteartea:

17:30ean: 'Elkarte arteko bertako produktuen XIV. lehiaketa gastronomikoa' eta 'Goierriko odolki hoberenaren X. kata-lehiaketa', Gargartza plazan.

Irailak 8, asteazkena:

9:00etan: azoka berezia.

Irailak 9, osteguna:

19:30ean: Barrena Kultur Etxean Barrena jauregiko kuxen erakusketa iraunkorra, Barrena Kultur Etxean.

Irailak 10, ostirala:

16:30etik 20:30era: Ostiraleko ohiko peria, Elkarte gastronomikoei prestatutako produktuak dastatzeko aukera eta guzti.

21:00etan: Kantu afaria, Plaza Nagusian.

Irailak 11, larunbata:

11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara: Haurren parkea Jose Migel Barandiaran plazan.

22:30ean: Beasaingo Aurtzaka dantza taldearen saioa, Plaza Nagusian.

Irailak 12, igandea:

12:00etan: XIII. Lazkao Txiki Bertsopaper lehiaketaren sari banaketa, Barrena Kultur Etxean.

Irailak 17, ostirala:

22:15ean: Mikel Markez kantariaren 'Erabil nazazu' azken lanaren aurkezpena, Herri Antzokian.

Irailak 18, larunbata:

18:00etan: Gorringo taldearen 'Munduko arrautzik handiena' haur ikuskizuna, Urdaneta kalean.

Irailak 24, ostirala:

22:15ean: 'Baina nik pozik kantatutzen det (Ordizia: gizaldi baten historia)' izeneko ikuskizuna, Herri Antzokian.

Irailak 25, larunbata:

20:00etan: Txistularien alardea, Plaza Nagusian. Ordiziako metal-boskoteak eta Ordiziako dantzariak, perkusio-taldeak eta abesbatzek ere parte hartuko dute.

borja de la *Jai zoriontsuak denoi!*

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Estoreak eta panel japonesak

Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoak
Mantak - Mañdiak - Storeak
Toailak - Gortinak eta osagaiak

J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84 **ORDIZIA**

MUGAR

**ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENAK**

aberiak, atezain automatikoak,
TB antenak, pabiloiak,
dendak, proiektoak,
berrikuntzak orokorrean...

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea **ORDIZIA**

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

K21
KALITATEA

E-mail: mugar@mugar.net
web-gunea: www.mugar.net

Euskal Pilota, 4 San Inazio, 8
☎ : 943 160 240 ☎ : 943 888 907

ORDIZIA BEASAIN
Faxa: 943 888 688

Azoka berezia, irailaren 8an

Euskal Jaien barruan, asteazkeneko azoka izaten da egun garrantzitsuenetariko bat. Irailaren 8an izango da aurten eta egun osoko egitaraua prest dago dagoeneko

9:00etan: Ordiziako txistularien, Tolasako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien diana.

9:00etan: I. Argazki-rallyaren hasiera.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruitu, barazki eta lepagorri oilaskoen txapelketa eta perretxikoen erakusketa.

12:00etan: Joxe Migel Barandiaran plazan fruitu, barazki eta perretxiko lehiaketaren sari banaketa.

12:30ean: Garagartza plazan, ganadu eta lepagorri oilaskoen lehiaketetako sari banaketa. Ondoren, bertso-saioa, dultzainariak eta trikitilariak.

13:00etan: Beti Alai pilotalekuan, gazta txapelketako sari banaketa.

17:30ean: Beti Alai pilotalekuan, profesionalen arteko eskuzko pilota partiduak: 1. partidua: 2. mailako profesionalak. 2. partidua: Olaizola I-Beloki Olaizola II. Peñagarikanoren aurka.

19:00etan: Alkartasuna-Ohiaka dantza taldearen jaialdia, kasko zaharrean.

19:30ean: Euskal kirolaren erakusketa, Joxe Migel Barandiaran plazan.



Urrian gehiago

Urriak 1, ostirala:

18:00etan: Dar-Dar txotxongilo taldearen 'Egizu lo, Tartalo!' lana, Herri Antzokian.

Urriak 2, larunbata:

18:30ean: Feria bereziaren I. argazki-rallyan aukeratutako diapositiba emanaldia eta sari-banaketa, Barrena Kultur Etxean.

22:00etan: Argia taldearen 'Pas de Basque' dantza ikuskizuna, Beti-Alai pilotalekuan.

Urriak 8, ostirala:

20:00etan: 'Ordiziako Euskal Letren Eguna', Barrena Kultur Etxean. Patxi Zubizarreta, Tere Irastortza, Xabier Mendiguren Elizegi, Rufino Iraola, Pako Azanza, Koldo Zubeldia, Ekaitz eta Irati Goikoetxea, Andoni Sarriegi, Koldo Goitia, Miñanjel Unanua, Juanbau Erauskin, Patxi Ezkiaga, Iñaki Mendiguren, Idurre Eskisabel eta Jon Aranok, beraiek aukeratutako testuak irakurriko dituzte.

Urriaren 9tik 12ra:

VII. Artisaualdia, Majori kiroldegian.

Urriak 15 eta 16:

Aste bukaera musikala Ordiziako rock taldeek antolatuta, pilotaleku txikian.

Urriak 23, larunbata:

22:00etan: Pello Serbielle kantari zuberotarraren saioa, Ordiziako Oroith, Oroith-Txiki, Santa Ana eta Jakintza abesbatzen laguntzarekin, Beti Alai pilotalekuan.

Urriak 29, ostirala:

22:15ean: Luis Caminoren 'Abya Yala' musika lana, Herri Antzokian.

Urriak 30, larunbata:

20:00etan: Tolosako Orfeoien kontzertua, Elizan. Tolosako Orfeoia izan zen orain 100 urte antolatu ziren ekintzetako erreferente musikala.

Urriaren amaieran:

'Ordiziako Euskera' lanaren aurkezpena egingo dute Zaldibiako Karmele Etxabek eta Larraitx Garmendiak.

NEKAZARITZA **ZELAETA** S.L.

Carlos Dianlidi Allizu



STIHL

VIKING



BCS



F-G

Yanmar

COMECA - SABO

Jonsered

DEUTZ - SAME

Ormaiztegi-Beasain errep. (Tejeria zaharra)

ORMAIZTEGI

Tfnoa: 943 16 15 15

Faxa: 943 88 24 73

KAFA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19

Tel: 943 88 12 80

ORDIZIA

Goierriko bertso eskola: uzta berria

Joanak joan, daudenak egon eta hasi berriekin uzta jasotzen hasiak. Goi puntan batzuk, bidean beste batzuk eta nozioak jasotzen bakan batzuk. Oholtza gainean batzuk, bertso afarietan bat-bateko saioetan inor eta eskolan errima eta doinuak lantzen gaztetxoak. Guztiak ere bertso munduan, sona handikoak batzuk eta horren itxaropenarekin beste batzuk. 22 urte Goierriko Bertso Eskola sortu zela eta belaunaldi berriei paso eman beharrean. 12 eta 10 urterekin Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan taldekako lehen postua eskuratu zuten maiatzean Ainhoa Mujika eta Joseba Agirrezabalak, biak ere Goierriko bertso Eskolako ikasleak.

02-03 ikasturtean eman zuten izena Ainhoa Mujika beasaindarrak eta Joseba Agirrezabala idiazabaldarrak Goierriko Bertso Eskolan. Astelehenero Ordiziako Barrera Kultur Etxeko gelan ordu eta erdiko saioa jaso eta bi urte pasatuta, doinuak eta errimak Ekaitz Goikoetxea, Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi irakasleekin nahikoa landu ondoren, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan aurkeztu eta txapela buruan zutela etxeratu. Bada zerbaite gero!

Biek ere txikitatik izan dute bertsolaritza gogoko eta Joseba aitak gomendatuta hasi zen Bertso Eskolan. Ainhoa, aldiz, Jakintza Ikastolan informazio orria jaso, animatu eta honela hasi zen bertso munduan. Esan bezala bi ikasturte burutu dituzte, eta beraiek aipatu bezala "giro ezin hobea dugu gure artean. Iaz bi taldetan banatuta geunden eta aurten, berri, denak elkarrekin izan gara. Lehenengo ikasturtean ber-



tsoak irakurri, errimak osatu, doinuak landu eta neurriak ikasi genituen. Aurten, berri, idatzitako bertsoak kantatzen hasi ginen aurrea eta amaierarako bat-bateko bertsoak botatzeko gai ginen. Hori dela eta irakasleak Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan aurkezteko proposamena luzatu zigun. Guk erokeria bat zela uste genuen baina taldea osatzeko Urretxuko Bertso Eskolakoe-kin harremanetan jarri zen Mikel Mendizabal, bertan Amaia Iturrioz eta Manex Mantxola animatu eta laurok hartu dugu parte txapelketan".

Kirioak alde batera utzita oholtza gainean

14 urte bitartekoen taldekako mailan hartu dute parte aipatu txapelketan, eta emaitzak ezin hobeak. Lehen aldiz aurkeztu eta txapeldun. "Lehen kanporaketa Beasainen bertan izan genuen, Usurbe Antzokian. Txapelketa prestatzeko Amaia eta Manex-ekin elkartu behar izan genuen eta birritan gu joan ginen Urretxura eta beraiek beste bitan Ordiziara etorri ziren. Eguna iritsi zenean oso urduri nengoen ni, 10 urte besterik ez

ditut eta dagoneko oholtza gainean. Doinuak ere ahaztu egin zitzaizkidan momentu batzuetan. Baina, tira, saioa amaitu genuen eta gure harridurarako finalerako txartela lortu, gainera. Zarauzko finalean gero lasaiago aritu nintzen", Joseba Agirrezabalak azaldu digunez. Eta Amaiak ondotik "niri alde-rantziz geratu zitzaidan, Beasainen ezer gutxi genuela joan pentsatuta edo lasai egon nintzen. Baina behin Zarautza joateko txartela eskuratuta buruari bueltak ematen hasi eta presioa sumatu nuen. Baina ondo atera zen dena eta begira, txapela buruan genuela iritsi ginen etxera".

10 eta 12 urterekin Gipuzkoako Eskolarteko txapeldun izateko giltzarria zein izan zen galdetuta biak ere ados zeuden aurretik egindako lana izan zela. "Joseba eta biok arituak ginen lehendik elkarrekin bertso eskolan eta Amaia eta Manexekin txapelketa aurretik egindako saioak ere garrantzitsuak izan ziren. Gero epaimahaikoaren gustuko bertsoak botako genituen edo eta saria guretzat", Josebak azaldu digunez. Maiatzaren 28an jokatu zen

Zarautzen aipatu finala eta Goierriko eta Urretxuko Bertso Eskolen artean autobusa antolatu zen bertara joateko. Autobusa segituan bete zen eta bigarren bat alokatu behar izan zuten gaztetxoak animatzera joan nahi zuten guztiak hartzeko. Josebarentzat hunkigarriak izan ziren momentu haiek. Publikotik jasotako animo eta txaloek ikaragarri lasaitu zuten eta ez zen batere kikildu.

Etorkizunari begira zer?

Behin saria jasota bertsolaritza munduan aurrera jarraitzeko asmoa agertu dute biek ere. Gaztetxoak dira oraindik eta badute zer ikasia. Momentuz urrian Bertso Eskolan berriro ere izena ematekotan dira biak ere. Bat-bateko taldean txertatuko dira biak ere eta ondoan badituzte aurten ez baina hemendik lasterrera oholtza gainean bertsorik botatzeko moduan izango denik. Odei Lopez, Leire Murua, Andoni Legorburu, Mikel Mariñelarena, Jon Aldasoro eta Mikel Asurabarrena orain hain ezagunak ez diren izen-abizenak baina zer esan handia emango dutenak hemendik gutxira bertso munduan. Ainhoa Mujika eta Joseba Agirrezabala ez dira geldi egon uda honetan, ordea. Argi Berri Elkartek Ordiziako Udalarekin batera urtero uztaileko antolatzen duen Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketan parte hartu du Ainhoak lan batekin eta sari-rik eskuratu ez duen arren bere horretan jarraitzeko asmorik ez zaio falta. Etorkizuna beraien esku dago eta bai Joseba eta baita Ainhoak ere ziur daukate helduak izatean bertsolari izatea gustatuko litzaiekeela.

Aitor Calvillo

Unanue

70 URTEURRENA
1934 - 2004

ORDIZIA - BEASAIN

70 urte
goierritarrak
goxatzen!




ORDIZIA

Goierri - Gipuzkoa - Euskadi

EUSKAL
2004 JAIK

IRAILAREN 3tik 12ra



ORDIZIAKO UDALA

Hainbat urtetan ospatu gabe egon ondoren: Ordiziako Eskarabilla auzoko jaiak berreskuratuko dira irailaren 18 eta 19an

Azken 16-20 urteetan ospatu gabe egon ondoren, bizilagun talde baten ekimenez, aurten berreskuratuko dira Eskarabilla auzoko jaiak. Ordiziako Urdaneta, Kale Berria, Maribaratza eta Goierri kaleak osatzen duten auzo honetan gazteenek galdua duten auzotar izaera berreskuratuko nahian dabiltza.

1941. urtean hasi ziren auzoko jaiak antolatzen, beti Euskal Jaien hurrengo aste-buruan. Garai haietan jai handiak izaten ziren zezenketa eta guzti. 40 urte baino gehiagotan ospatu ondoren pixkanaka galtzen joan ziren. Lagunartean, tabernako giroan, hasi ziren berriro antolatzeko asmoekin. "7-8 lagun lanera-ko prest bazeuden aurrera aterako genuela esan genuen, baita egin ere. Auzotarrei batzar baterako deia egin genien eta lanean hasi ginen".

Arazo handiena dirua bil-tzen ikusten zuten. Gutxienez 6.000 euro behar zituzten. udalak 900 euroko laguntza eman die eta zozketa baten bidez lortu dute diru kopuru-rik handiena: "auzoko denda eta taberna guztietan daude edo errifak salgai edo jai-ai-

laguntzeko itsulapikoa. Auzotar asko ere prest agertu da errifak saltzeko".

Jai egunak ondo antolatzeko eta denek jaietaz gozatu ahal izateko 70 lagun beharko dituzte bi jai-egunetan txanda-ak eta lanak egiteko. "Gutxiagorekin ere egin liteke baina bakoitzak lan bat baino gehiago eginez, eta denok ondo pasatzeko auzotarren laguntza beharrezkoa dugu".

Jai guinea

Suhiltzaileen egoitza zahar-aren aurrean izango da jaien guinea. Bertan egongo dira oholtza, txosna bat eta bazkarirako karpa. Jai gunetik Ordiziako sarrerako bidea pasatzen denez, larunbat gaueko 10etatik igande goizaldera arte Malkaskon errepidea itxiko da eta kuarteletik bideratuko da. Eroskitik igotzen direnak berriz geltoki aldera bideratu-ko dira.

Jaietan garrantzia dute haurren ekitaldiek, hainbat joko eta lasterketaz gain haur- ren bazkaria prestatu dute helduenaren aurretik. "Gaur egun galdua duten auzotar izaera indartzeko, zenbaitek Eskarabilla zer den ere ez du- te jakingo, garrantzitsua ikusten dugu haurren parte hartzea", diote antolatzaile-ek.



Ibaiari lotutako auzoa

Eskarabilla izena auzo parean ibaian zegoen presatik dator. Fabrika Haunditik fundizio hondakinak errekarra joaten ziren eta hauek presan pilatuta geratzen ziren. Auzoko jendea, ba- tez ere emakumeak bertan aritzen ziren txatarra eta baliozko hondakinen bila, gerra ondorengo gose urteetan familiako ekonomiarentzat lagungarri zen. "Eskarabilla beti ibaiari oso lotuta egon den auzoa izan da. Duela 25 urte ingurura arte auzoko umeen jolastokia izan zen ibaia. Negua Gar- mendia okindegiko labeko paretaren kontra bizkarra berotuz pasatzen genuen eta uda, berriz, ibaian". Antolaketa lanetan dabiltzanak garai bateko kontu zaharrak berreskuratuko nahian ibili dira, baina, gerra garaiko eta aurreko kontuak kontatuko dituen auzotar gutxi geratzen da bizirik.

Auzo izaera

Eskarabillakoek auzotar sentimendua izan dute beti, nahiz eta azken urteetan galtzen ari den. "35 urtetik gorako auzo- tar bati, Ordizian, norbaitek nongoa den galdetuz gero, Es- karabillakoa dela erantzuten dio. Merkataritza aldetik ere bizi handia izan duen auzoa da Eskarabilla".



BIOK ZERBITZUAK, S.L.
Enpresetako aholkularitza orokorra

www.biokzerbitzuak.com

☎ 943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitartekoak

Jaietako egitaraua



Irailak 18, larunbata:

10:30etan: Haur jolasak.

12:00etan: Txupinazoa bonberian. Erraldoiak, buruhandiak eta trikitixa.

Ondoren: Poteo herrikoa.

17:00etan: Toka txapelketa.

17:00etan: Oin lasterketa haurrentzat.

18:00etan: Koadrilen arteko herri kirolak.

18:00etan: Kale antzerkia Gorringo taldearekin, 'Munduko arrautzik handiena'.

18:00etan: Txokolate jana.

20:00etan: Berbena, Trikizio taldearekin.

23:00etan: Mozorro gaua. Berbena, Trikizio taldearekin eta DJ Bull.

Goizaldeko 6etan: Matutina.

Irailak 19, igandea:

11:00etan: Alborada, herriko txistulariekin.

12:00etan: Patxin eta Potxin pailazoak.

13:30ean: Antton Imaz eta J.I. Iturrioz abeslariak.

14:30ean: Herri bazkaria: zikiro jatea.

18:00etan: Erromeria.

20:00etan: Kontzertua '33 rpm' herriko taldearekin.

Oharrak

- **Herri Bazkarirako txartelak** irailaren 10a bitartean eros daitezke Aldasoro, El Paso eta Alaia tabernetan eta Bege dendan. Bazkariko menua: entsalada, arkumea, piperrada, postrea, kafea eta kopa. Prezioa: 20 euro. Haurrek menu bezetia izango dute: makarroiak eta solomoa (5 euro).
- **Matutinaren ibilbidea:** Torresol, Malkasko, Kale Berria, Maribaratza, Bonberia. Danborrak irteera unean banatuko dira.
- **Koadrilen arteko herri kirolak:** 5 laguneko taldeak behar dira. Izena emateko, Aldasoro tabernan irailaren 10a bitartean.
- **Jaietarako argazki erakusketa** antolatu nahi da. Argazkiak dituenak Bege dendan utzi ditzake irailaren 13a bitartean.
- **Antolatzaileek** bizilagunak animatu nahi dituzte balkoiak ikurrinak eta abarrekin apain ditzaten.
- **Antolatzaileek** bizilagunei jai guneko autoak ahal den gutxiena mugitzeko eskaera egiten die.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

LEIAR
 KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
 Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
 Salvatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Olagi
 Sagardotegia

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
 ☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
 AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
 Isuses industrialdea - ARAMA
 Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

**ATEAK
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 ARMAIRU ENPOTRATUAK
 OBRAK
 ERREFORMAK**

Sahara-Gipuzkoa topaketa Zegaman

Aurtengo uda Gipuzkoan pasatu duten haur saharaiuentzat Zegama gune hartuta, abuztuaren 26rako topaketa antolatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratze Departamentuak. Topaketa honen helburua Saharatik etorritako 120 haurrek elkarrekin egun bat pasatzeaz gain, agur jai handi bat egitea ere izan zen.

Mari Karmen Marin diputatua Zegaman izan zen eta Zegamako alkateak egin zien harrera guztiei. Mari Karmen Marinek esan zuen, egokia eta beharrezkoa zela, gure artean uda pasatutako hurrei datorren urterarteko agurra esateko festa bat antolatzea eta aldi berean Sahara herriarekiko Gipuzkoaren elkartasuna agertzea.

Azken urteotan, Tinduf errefuxiatuen kanpamendutik haur ugari datoz Gipuzkoara uda pasatzera, bertan gipuzkoar familiek beren etxeetan hartuz. Sahara herriarekiko elkarlaguntzan dabilzan elkarrekin arduratzen dira haur hauentzat jarduerak antolatu eta koordinatzen. Hori dela eta, Foru Aldundiak, haur eta hauei laguntza eskaintzen dien elkarten arteko topaketa bat egitea erabaki zuen, topaketa burutzeko Zegama aukeratu zuten.

8 eta 14 urte bitarteko haur saharauriarrek, Zegamako haurrekin nahastuta, puzgarri eta zezen maknikoaz gozatu zuten eta Ostaturun bazkaldu ondoren Segurako bidea hartu zuten.

Edurne Albizu

San Bartolome jaietako emaitzak

Mozorroetan, Asturiasko Printzeen ezkontza, 'sevillanoak' eta 'paga gehiago' eskatzen zuen Iñigo Atxaren txozna izan ziren sarituak.

Txirrindu frogetan herritar ugari parte hartu zuten eta hona hemen garaileen izenak: 7 urtetik beherakoak: Mikel Rey, 7, 8, 9 urtekoak: Ibai Arrizabalaga; 10, 11 urtekoak: Unai Atxa; 12, 13 urtekoak: Aritz Olaziregi eta Apeaderora Igoera: Xabier Goiburu.

Jaien programako azala: Leire Igoaren argazkia izan da aukeratua.

Lorategi eta leihoetako apainketa lehiaketan berriz, Mari Luz Garcia eta Maite Aizpeolea izan ziren sarituak.

Elkarten arteko paella lehiaketa aurten jubilatuek irabazi dute: Mari Carmen Artano eta Maritxu Galarragak osatutako bikoteak hain zuzen ere eta bigarren saria, Asun Mendizabal eta Mari Paz Ormazabalak eraman zuten.

Herritarren arteko toka txapelketa: Juan Jose Garaia.

Herritarren arteko bolo txapelketa: Juan Luis Urzelai.

Gipuzkoako Bolo txapelketa: German Gereñu.

Udal Liburutegia eta KZgunea

Datorren irailaren 6an, udako oporraldia pasatu ondoren, udal liburutegia berriro ere irekiko da astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 7etara.

Kzguneari dagokionean, udan zehar udal bulegoko ordutegian irekita egon da eta irailaren 6tik aurrera, goizean Udaletxean eskatu behar da giltza eta arratsaldean, udal liburutegian eskatu behar da giltza bere erabilpenerako. Kzgunea, 18 urtetik gorakoei dago zuzendua.

San Martinetako pilota txapelketa

San Martinetan finala jokatzeko asmoz, aurten ere pilota torneoa abian jartzeko izenematea martxan dago. Izena, Udaletxean eman behar da, irailaren 6tik 14ra bitartean eta, irailaren 14an, iluntzeko 8etan Udaletxean egingo da bikoteen arteko zozketa. Partehartzaileak zozketan egotea eskatzen da.

Orkatz Abesbatza martxan

Orkatz Abesbatzak ere udako oporralditxo egin ondoren ikasurteari hasera emango dio datorren irailaren 10ean, gaueko 9etan lehen entsaioa egingez. Bestalde esan, Sant Sadurni joateko asmoa duten abesbatzez kanpokoek, egun horretan Kultur Etxean egingo den entsaiora agertzea komeni dela.

Orkatz Txiki abesbatzak ere entsaioak irailaren 10ean hasiko ditu, 19:00etatik aurrera.

Bentako Obrak

Benta baserriaren parean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentua egiten ari diren obrak aurrea iri doaz eta aurreikusitako 5 astetako epean bukatzea espero da.

Inprentakoen bazkaria

Zegamako inprenta zaharrean lan egin zutenek urtero lagunarteko bazkari bat egiten dute Ostaturun. Aurtengorako 2004ko irailaren 19a dute aurreikusia bazkaria egiteko eta bertan parte hartu nahi duenak izena irailaren 15erako honako telefono huetako batera deituz eman behar du: 679759335 (Maite Garcia) eta 686999493 (Maite Aierbe).

Ibon Isasi garaile Zegaman.

Igandean ospatu zen San Bartolome Jaien barnean, LXXI. San Bartolome Txirrindu proba goizeko 10:00etatik aurrera. Afizionatuen proba hau gipuzkoa korritzen diren zaharrenetako dar.

Alfus-Tedes taldeko Ibon Isasik, 3 ordu, 7 minutu eta 29 segundu behar izan zituen froga irabazteko, "Serbitzu" taldeko Jon Bikendi 5 segundu beranduago sartu zen helmugan eta "Telco'm" taldeko Luis Moyano 13 segundutara sartu zen.





Igartza auzoko festak

Iraila iristearekin batera, eta ikasturte berriaren hasiera arina izan dadin, Igartza auzoan festak izaten dira auzokarion. Auzotarrek antolatutako jai egitaraua duzue jarraian:

Irailak 8, asteazkena:

18:00etan: Meza, Loinazko ermitan.

18:30etan: Erromeria.

Irailak 10, ostirala:

19:00etan: Kilikien eta txistularien irteera. Txupinazoa.

20:00etan: Batukadarekin kalejira.

22:30ean: Antzerkia Pikor taldearekin: 'Al fondo a la derecha'.

24:00etan: Rock kontzertua.

Irailak 11, larunbata: mozorro eguna:

10:30ean: Igeriketa probak XVII. Antzizar txapelketa herrikoia. III. Leire Kontreras memoriale.

11:00etan: Haur jokoak Txilibutxofekin.

15:00etan: Graffiti erakustal-

dia.

16:00etan: Gezi tiraketa. VII. Igartza Saria.

16:30ean: Mus txapelketa eta haur jolasak Itturri taldearekin.

17:00etan: Toka eta igel txapelketa.

18:00etan: Pelota partiduak Antzizar Kiroldegian.

18:30ean: Skate eta Roller erakustaldia.

19:30ean: Trikipoteoa.

23:30ean: Trakets taldearekin dantzaldia.

02:00etan: Gamusino ehiza.

Irailak 12, igandea:

08:30ean: IV. Ehiz txakurren lehiaketa Ittola zelaian.

12:30ean: Trikipoteoa.

18:00etan: Euskal dantza jaialdia.

19:00etan: Herri kirolak eta bertsolariak. Azurmendi, Mugertza aita eta bi semeak aizkoran eta trontzan. Goenatxo II. harrijasotzen.

20:30ean: Trikipoteoa.

22:00etan: Jaien amaiera.



Beasainmendiko jaiak asteburuan

Irailaren 4an eta 5an Agortan ospatuko dira Beasainmendiko jaiak. Bi egunetarako egitaraua antolatu du Beasainmendiko Elkartek. Bihar, irailak 4, herri afaria izango da gaueko 9etan trikitixa lagun dutela.

Iganderako prestatutako egitaraua hurrengo duzue: goizeko 8etan, suziriak; 11etan herri meza trikitilari eta bertsolarienkin; 11,30etan, Aizkorri Mendizale Elkartekoei ongi etorria; 12etan, Laja eta Mikel trikitilariak; ondoren, Mikel Mendizabal eta Sebastian Lizaso bertsolariak; 12,30etan, apustua, Usurbera igoera, bat bizikletaz eta bestea korrika; eguerdiko leian, Abarizketa baserriko Joxe Aranburu eta Elbira Goitia omenduko dituzte; ondoren, Jokinen oroimenean aurrekua eta lore eskaintza; 1,30etan, herri kirolak, Azurmendi eta Olasagasti aizkolariak eta Goenatxo harri-jasotzailea; 2,30etan, bazkari herrikoia; arratsaldeko 5etan, haur jolasak eta 6,30etan Laja eta Mikel trikitilariak.

Adineko pertsonen eguna

Irailaren 18an eta 19an ospatuko dira herriko adineko pertsonen eguna. Hurrengo alean bilduko dugu informazio gehiago.

Nekane Altuna

KALITATEKO
EUSKAL OKELA

Harategia - Urdaitegia
Festa onak pasa!
Saltsamendi
☎ 943 888 646
Igartza Oleta, 12 BEASAIN

JULIAN MUJICA
Harategi - Urdaitegia
Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 10
☎ 943 88 01 96
BEASAIN

AKELARRE TABERNA

LOTO - PRIMITIVA - 1 X 2
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 08 61 62
BEASAIN

ANTZIZAR Taberna
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17
BEASAIN

San Migel pilota txapelketa

Hilabete baino gutxigo gertatzen den honetan San Migel egunerako prestaketa denak eginak ditu Javier Gelbenzu pilotako arduradunak. Aurten partaide gutxiago izango dira baina hala ere pilotari asko, 90 hain zuzen ere. Maila desberdinetan jokatuko dira neurketak; benjaminak, alebina, infantilak, kadete-jubenil federatuak, nagusi federatu gabeak eta federatuak. Infan-til mailan izango dira gehien parte hartuko dutenak 12 bikoterekin. Hilaren 6an hasiko dira gazteenak aste guztian zehar jokatzeko eta nagusiak aste bukaerako utziaz.

Errejonial taldea

Abuztuaren 30ean eman zion hasiera aurre-denboraldiari. Urtero bezala jokalarien joan etorriak aldakorrak direnez aurten ere beste hainbeste

gertatu da talde honetan. Batzuk taldea utzi, besteak beste talde batetara joan eta berriak etorri. Oraindik ikusteko dago zein talde izango den urte guztian zehar prest egongo dena taldearen heburua aurre-ramateko baina berehala ikusiko da. Lazkaokoa ez den norbait interesaturik badago taldean sartzeko jakin dezala ate guztiak zabalik dituela.

Kiroldegia

Irailean berriro ere lehenagoko ordutegi bera izango du Joxemiel Barandiaran kiroldegia. Honako hau izango da; astelehenetik ostiralera; goizeko 7etatik gaueko 9etara. Larunbatetan, goizean, 9etatik 1era eta arratsaldean berri, 4etatik 19:45era. Igande eta jai egunetan; 9etatik 1era.

Aitor Tello



Arizti Haundi

Denboraldiaren hasiera ate joka dagoenez Arizti Haundiko proiektu eta obrak ere aurrerakada handia egin dute nahiz eta dena amaitzea oso zaila izan behar den egunerako. Proiektu erdi honen lehen atalean, aldagelak berriro dituzte, eta grada nahiz atletismoko pista egin dituzte.

Xanbe abesbatza

Xanbe abesbatza parte hartu nahi dutenentzat deia. Ikasturte berria hasteko irailak 8rako, asteazkena, egin dute deia, iluntzeko 7,30etan Ikastolan.

Odol ateratzeak

Irailaren 15ean izango da berriro ere odol emaileen asmo ona erakusteko aukera. Oraingoan ere Lazkaoko Kultur Etxean izango da 18:30etik 20:00etara eta elkarte honen deialdia odol emaile guztiei eta bereziki gazte jendeari zuzendua dago. Oharra: odola eman baino hiru ordu aurretik, jaki sendo edo koipetsurik ez jateko eskatzen da baina komenigarria litzateke zerbait arina hartzea.

Urko Irastortza Auzitegi Nazionalen

Baltasar Garzon epaileak deituta, irailaren 2an Auzitegi Nazionalen deklaratzeko zen Lazkaoko Urko Irastortza. Udalbiltza auziaren barruan, inputatu gisa deklaratzera deitu du Irastortza, beste 10 kideekin batera, talde armatuko kide izateaz leporatuta. Lazkaon, Irastortzari babesa agertu eta egoera salatzeke hainbat mobilizazio egin dira egunotan Lazkaon. Herriko zinegotzi ohia (Euskal Herriarrok) da Irastortza.

Areria Zutabeak honako eskutitz hau bidali du, Irastortzari babesa eta elkatasuna adierazteko:

"Bai Euskal Herriari, bai Udalbiltzari

Euskal Herria eta euskal herritarrek Garzonaren eraso baten aurrean. Zorigaitzoko esaldia behin eta berriro errepikatzen ari dena. Oraingoan 11 dira Auzientzia Nazionalera deklaratzera deitu dituen euskaldunak. Jasone Astibia, Expe Iriarte, Juan Karlos Alduntzin, Joxean Barandiaran, Miren Odriozola, Iñaki Olalde, Xefe Ziarrusta, Maribi Ugarteburu, gartzelaratuak dauden Unai Dañobeitia eta Peru Aranburu eta gure herritarra den Urko Irastortza lazkaotarra.

98. urteaz geroztik ehundaka izan dira Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren alde, esparru batean edo bestean, lan egiteagatik atxilotuak eta espetxeratuak izan direnak. Egin egunkaria eta Egin irratitik hasita, Haika, Ekin, Joxemi Zumalabe, Askatasuna, Segi, Udalbiltza, Batasuna, Euskaldunon Egunkaria ...

Eraso hau ez demokratiko eta larritzat jotzen dugu eta ez dugu erantzunik gabe utzi nahi. Euskal Herria nazio aske bat izan arte lanean jarraituko dugu eta honelako erasoak salatzen.

Lazkaoko Udalari eta Felix Urkola alkateari, Urko zure lankide ohia Madrilera deklaratzera deitua izan da (irailaren 2an) eta espetxeratua izateko arriskuan dago, zer egingo duzue egoera honen aurrean? Ez dezagun ahaztu Urkok ehunka herritarren babesa jaso zuela zinegotzi kargua izateko eta eskubide hori bermatzen ez zaiola utzi. Horretan erantzukizun zuzena dute Udaleko PNV-EA ko hautetsiek.

Bide batez ez genuke idatzitxo hau bukatu nahi era batean edo bestean Euskal Herriaren alde borrokan, lanean, dihardutenak gogoratu gabe, kartzeletan edota kalean, eta nola ez Urkori eta bere familiari babesa eman gabe."



Dolarea

jatetxea

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21 - 20200 Beasain



T. 943 888 829



Gure eguneroko
menuak edo enpresa
menuak dastatzera
gonbidatzen zaitugu...

Betiko otordu eta
ezohizko jakien
konbinaketen
dastamenera.

*Otordu ezin
hobeak mahaian.*

LAZKAO

**Etxebizitza
unifamiliarra:**

- Lorategia
- Eguzkitsua
- Goi mailako materialak





943 16 10 32



MUGIKORTASUN ASTEA

GOIERRIN

Irailaren 16tik 22ra





Urkiko jaiak

Irailak 11, larunbata:

19:00etan: Suziri jaurtiketa festak hasteko.

21:00etan: Lagunarteko afa-
ria elkartean.

23:00etan: XXII. mus txapelketa.

23:00etan: Olarte anaiak tri-
kitilariak.

Irailak 12, igandea:

10:00etan: Meza nagusia.

11:00etan: Hamaiketakoa.
Jauregi eta 'Lutxurdio' triki-
tilariak.

14:30ean: Bazkaria.

19:00etan: Herri kirolak.

- Joxe Mari Esnaola 4m-
ko altueran kana-erdikoari
bi korte ematen.

- Joxe Mari Olasagasti An-
jel Arrospideren aurka kana
erdikoa azkarren zenek
ebaki.

- Maider Mazisidor aizko-
raz, Joxe Ugarteburu ai-
tzurraz, nork kana erdikoa
azkarren ebaki.

- Olasgasti eta Ugarteburu,
Arrospide eta Esnaolaren
aurka 6 Kana-erdiko txan-
da-librean ebakitzen.

20:00etan: Jauregi eta 'Lu-
txurdio' trikitilariak.

Irailak 14, asteartea:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketakoa.
Olarte anaiak trikitilariak
alaiturik.

14:30ean: Bazkaria.

19:00etan: Erromeria Olarte
Anaiak trikitilariak.

Oharra: Jaietan zehar, Urki-
ko jaien alde sari bat zozketa-
tuko da. Zenbaki irabazlea
igande iluntzeko 9etan bertan
aterako da.



Urtsu-Haundiren aldeko asteburua

Azaroaren 21ean erre zen

Herritarrek osatutako batzor-
de berezi batek, azaroaren
21ean erre zen Urtsu-Haundi
baserriaren alde dirua biltze-
ko hainbat ekitaldi antolatu
ditu. Irailaren 24tik 26ra bi-

tartean izango dira. Hurrengo
alean egitarau zehatza azal-
duko badugu ere, hona he-
men aurrerapen bat:

Irailaren 24an, 22:30ean,
Andoni Egaña eta Maialen

Santa Fe jaiak prestatzeko

Irailaren 7an, arratsaldeko 7,30etan, kultur etxean, Santa Fe
jaiak antolatzeko bilera egingo da.

Lujanbio bertsolariak eta he-
rriko abeslari eta artisten jar-
duna izango da.

Irailaren 25ean, arratsalde
partean, herritarren arteko
proba desberdinak izango di-
ra: behiak jezten, harrijaso-
tzen, trontzan, korrikan, txin-
gatan, bizikletan... Gauean,
10,30etan, Benito Lertxundi-

ren kantaldia izango da. Dis-
ko berriaren grabaketarako
hainbat kantu abestuko ditu
oriotarrak. Sarrerak aurrez
eros daitezke.

Irailaren 26an, azkenik,
eguerdiko ordu bietan, herri-
tarrek emandako 50 sariren
zozketa egingo da.

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

- ✖ Depresioak
- ✖ Harremanetarako arazoak
- ✖ Beldurrak
- ✖ Antsiak
- ✖ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

**Pedro Jose Lan-
da Gutierrez**
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

PSIKOLOGI KLINIKOA
AGI

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA
943 887 221
610 020 041

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

943 02 76 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

ZUZENKI
A HOLKULARITZA A

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosgi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin
www.txekin.net

IUES
ROTHERS
BEASAIN

Erromesaldia asteburu honetan

XXII. usakume tiraketa

Irailaren 5ean, Txoritegi elkartek antolatuta, goizez eta arratsaldean Azpaotza-txiki baserriko zelaian. Izen ematea, bertan, 25 euro (usakumeak sartu gabe). 2000 euro eta eskopeta saritan. Sariak lehen 40 sailkatuentzat, lehen herritararentzat, elkarteko lehenengoarentzat, zaharrentzat, gazteenarentzat eta lehen emakumezkoarentzat. Kartutxo salmenta eta taberna zerbitzua egongo da.

Ehiz postuen subasta

Abuztuaren 27an, partzoneriko sei herrien artean (Segura, Zegama, Idiazabal, Zerain, San Millan eta Asparrena) 48 ehiz postu zozketatu ondoren, gainerako 48ak irailaren 12an subastatuko dira Segurako udaletxean, goizeko 10,30-etan hasita. Proposamenak, irailaren 11rako, 12:00ak aurretik bidali behar dira.

Auzo afaria

Irailaren 11n ospatuko da Arantzazu barrioko eguna. 20:00etan, auzoan hildakoen aldeko meza izango da. On-

Arantzazuko eguna irailaren 9an dela eta, aurreko asteburuan joan ohi dira mendiz segurarrak bertara, mutiloarren eta zeraindarrekin batera. Ibilbidea mendiz egingo dutenek, irailaren 4an, goizeko 8etan hartuko dute autobusa Otzaurteraino joateko. Handik oinez abiatuta, bazkal gairako Urbiara helduko dira. Bertan bazkaldu ondoren, Arantzazura jaitsi, bezperak entzun eta autobusez etxeratuko dira.

Irailaren 5ean, goizeko 10etan autobusez aterako di-

doren, bolalekutik plazara-noko auzotarrak afarian elkartuko dira Imaz jatetxean.

Musika eskola

Tobera musika eskolako ikasleek irailaren 6an hasiko dute 2004-05 ikasturtea. 40 neska-mutikok eman dute izena, musika tailerrean, musika hezkuntzan edota instrumentuetan aritzeko. Azken honetan, pianoa, akordeoia, trikitixa, panderoa, saxofoia, klarinetea eta gitarra eskaintzen dira. Helduen talde bat ere osatu da eta irailean da hastekoa.

Joseba Telleria



1998an Urbiako fondan. Argazkia: Peio Agirrezabal.

ra berriro Arantzazura. 12:00etan erromesei eskainitako meza izango dute. Ondoren bazkaria Ospederian.

Arratsaldean herrira itzuli eta txistulari eta agintariek harre- egingo diete Jermanenen, parrokiraino lagunduz.



Jubilatu- eguna

Irailaren 12an ospatuko dute herriko jubilatuak euren urteroko eguna. Herriko txistulari eta dantzarien harreraren ondoren, 12:00etan meza izango dute parro-

kian. Ondoren, autobusez, Zumarragako Etxeberri jatetxera joango dira bazkaltzera. Joaterik ez duen 80 urtetik gorako herritarrei, etxera eramango zaizkio tarta eta txanpaina. Bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du bazkariagatik. Meza baino 10 minutu lehenago arboladian elkartzeko deia egin dute antolatzaileek. Argazkian, jubilatuak mezatik irtetzen.

Labur-labur

● **Dirulaguntza elizako obrei.** Diputazioko '2004ko %1 kulturala' programaren barne, Segurako elizari diru-laguntzarik handiena egokitu zaio. Bobeda eta teilatuko lanen kostea 600.000 eurokoa izan da eta Diputaziotik 413.000 euroko laguntza jasoa da.

● **Bola.** Bidegoiango San Bartolome proba, Xepeño Agirrek irabazi zuen. Abuztuaren 29ko Brinkolako San Agustin proba ere Xepeñok eskuratu zuen.

● **Sahararrak Seguran.** 2 hilabete erkidego autonomoan pasatzen ari diren 7 eta 13 urte bitarteko 113 neska-mutikok abuztuaren 26ko arratsalde gure artean pasa zuten. Besteak beste, pilotalekuan eta igerilekuan ibili ziren.

● **Izartu programa.** Uztailaren 22an jakinarazi ziren Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntza jasoko duten herrien izenak. Horien artean, Segurak, 1.736.925 euro jasoko ditu. Hurrengo alean informazio gehiago.

● **Kale Nagusiko obrak.** Irailaren erdirako zulaketak amaitu eta Kale Nagusia zabalik izatea espero da. Bide batez, bolalekutik beherako uren hartuneak aldatzen ari dira. Ondoren, etxe bakoitzari egin beharreko argindar hartuerekin hasiko dira.

● **Plaza zaharreko obrak.** Antonkalene aurreko plazan berritze lanak irailean hasi eta amaitzea espero da.

● **Udal liburutegia.** Irailaren 6an zabalduko da. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Ardura-dun berria Zelestina Goitia beasaindarra izango da.

● **Hautzaindegia.** 0-2 urte bitarteko 5 ume hasiko dira irailaren erdian. Irakasleen esleipena eta altzariak sartzea falta da.

● **2004-05 ikasturtea eskolan.** Irakasleak irailaren 1ean hasi ziren eta ikasleak 8an hasiko dira.

● **Futbol denboraldia.** Irailaren 3. asteburuan hasiko dira norgehiagokak. Errejonak, jubenilak, kadeteak eta infantilak arituko dira.

● **III. Hegazti eguna.** Irailaren 26an ospatuko da. Antolaketa bilera, irailaren 7an, 19:00etan.

Garagardoaren festa

Idiazabalgo Areta Futboleko taldeak Garagardoaren bigarren festa antolatu du irailaren 10eko astebururako. Igarondo pilotalekua, hiru egunez garagardo mota ezberdinak dastatzeko gune bihurtuko da. Dozena bat baino garagardo mota gehiago eskainiko dituzte. Edariarekin batera, horrelakoetan ohiko bihurtu diren jakiak ere egongo dira.

Ostiralean hasi eta igandera bitartean Garagardo festak arratsaldeko 6etan irekiko dituzte ateak. Goizaldera arte egongo da zabalik. Irailaren 11n (larunbata) afal ondorenean Doctor Blues Band taldeak kontzertua eskainiko du.

Areta Futboleko taldeak antolatutako ekimenaren helburua, talde horrentzako dirua eskuratzea da.

Xabier urteaga



Inaugurazioa

Iazko abenduan ireki zuten, baina, Artzai Gaztaren egoitza berria irailaren 10ean (ostirala) inauguratuko dute. Ekitaldia eguerdiko 12,30etan hasiko da Pilarreneako lorategian, agintariei harrera egingo diete bertan. Ondoren, Artzai Gaztaren egoitza bisitatuko dute. Eguerdian bazkaria egingo dute Zelaako kiroldegian.

Arantzazura erromes

Azken urteetan errotutako ohiturari eutsiz, herritar talde batek autobusa antolatu du irailaren 5ean Arantzazura joateko. Goizean Idiazabaldik abiatu, Arantzazun meza entzun, bazkaldu eta arratsaldean bueltatuko dira herrira.

Ikasturte hasiera

Irailaren 8an (asteazkena) hasiko da ikasturtea Aita Iparragirre herri eskolan. 19 haur hasiko dira bi urteko gelan. Herriko ikastetxetik 13 ikaslek alde egin dute Loinazpe institutura.

Musika Eskolan 27 ikaslek eman dute izena ikasturte berri-rako. Horietatik 15ek piano ikasketak egingo dituzte.

Ikastaroak

Udalak, kirol eta eskulan ikastaroak antolatu ditu udazkenarako. Kirolari dagokionez, jubilatuentzat soinketa, mantenimenduko soinketa, soinketa terapeutikoa, aerobika eta yoga daude aukeren artean. Izena eman eta ordutegien berri izateko, Udal-letxera edo Kiroldegira jo behar da.

Eskulan ikastaroetan, ohikoekin batera (egur taila, hari lana, sukaldaritza, eskulanak eta joste lana) berriak ere antolatu dira. Brikolaje tailerra, barre terapia eta Inglesa ikasteko aukera daude aurten. Izena irailaren 15a baino lehen eman behar da Udaletxean.

Guraso Elkartea

Gurutze Berri auzoan Guraso Elkarteak duen lokalari buruz hitz egiteko bilera antolatu du Udalak. Irailaren 16an, osteguna, izango da arratsaldeko 7etan.

Bilera irekia izango da. Guraso Elkartearekin zerikusia duten herritar guztiek hartu dezakete parte. Gurutze Berri auzoko biztanleek behin baino gehiagotan eskatu diote Udalari aretoarekin zerbait egiteko. Egoera horri irtenbidea nola eman aztertuko da bileran.

Josune Bereziartu

Josune Bereziartu eskalatzaile beasaindarrak bere lanaren berri emango du irailaren 17an 19:30ean Pilarreneako ganbaran. Diaporama eskainiko du eta solasaldia ere izango da.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045

Ondramuño baserria IDIAZABAL

San Gregorioko jaiak

Udako oporrak amaitzear diren honetan, kurtso berriaren hasiera astuna eta gogorra izan ez dadin, San Gregorio auzoan festak dira, lanera eta klasera buelta arinagoa gerta dakizuen. Jaiak atzo, osteguna, hasi ziren txupinazoarekin. Ondoren herri afaria, bertsolariak eta trikitilariak izan ziren. Hona igandera arteko egitaraua:

Irailak 3, ostirala: San Gregorio eguna:

11:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Salda beroa Pelotazale elkartean.

12:30ean: Ataundarrentzako toka txapelketa.

Ondoren: Bertso poteoa Joxe Agirre eta Jokin Uranga bertsolariekin.

14:30ean: Herri bazkaria (erosi txartelak aurrez) bertsolariek alaiturik.

19:30ean: Ataungo pilotari gazteen arteko pilota partidak Zelai frontoian.

22:00etan: Rock kontzertua Artadi Kultur Elkartean. Sarrera dohainik.

00:00etan: Elortza anaiak trikitilariekin erromeri eta triki-poteoa. Mozorro gaua.

Irailak 4, larunbata: Koadrilen eta umeen eguna:

10:30etan: Ume eta antola-

tzaileen juntaizoa plazan.

Ondoren: kamixeten banaketa.

11:00etan: Sebastopoleko titiriteroak: zirko tailerrak ume eta ez hain umeentzat zelai frontoian.

Bitartean: Tripa betetzeko mokautxo bat egingo da.

12:30ean: Koadrilen juntai-
zoa plazan.

14:30ean: Koadrilen bazkaria San Gregorio auzoko leku zoragarri batean txarangak alaiturik.

16:00etan: Erreka jaitziera edo igoera.

18:00etan: Txirindulari afizionatuen lasterketaren amaiera eta sari banaketa.

18:00etan: 'Euskal presoak Euskal Herrira' kontzentrazioa txirindulari probako helmugan.

Ondoren: Asto karrera, aurtent nobedade ikusgarriekin.

00:00etan: DJ Potz-en disko festa mundiala goizaldera arte.

Irailak 5, igandea:

10:00etan: Meza Nagusia

Ondoren: Salda beroa Sute-
gin.

12:30ean: Pilotari afizionatuen arteko esku-pelota partidak Zelai frontoian.

13:30ean: Herriko Otsoak dantza taldearen dantza saioa plazan.

Sukia Real Unionera berriro

Irungo Real Unionek Egoitz Sukia aurrelari ataundarra erreku-peratu du hasi berria den denboraldi honetarako. Tarragonako Gimnastic taldean aurreko denboraldi burutu ondoren. Abuztuan itxi zen fitxaketa eta datozen bi denboraldiak ataundarrak Irungo taldean burutuko ditu.



29 urte ditu Egoitzek. 2002/2003 denboraldia Real Unionen egin zuen, handik Tarragona aldera joan zen, denboraldi bat han egin eta aurtent berriro Iruna itzuli da, Sukiaren fitxaketarekin Real Unionek taldea itxi zuen. 2.B mailan dago Real Union. Aurreko asteburuan jokatu zuten ligako lehenengo partida Zamoraren aurka, eta banako berdinketarekin amaitu zen neurketa. Sukia 50. minutuan zelairatu zen.

Zinerako langilea behar da

Urbieta S.L. enpresak jakitera eman duenez, Ataungo Herri Antzokian lan egiteko langilea behar da. Urritik maiatzera bitarte operadore lanak egiteko. Interesa duen orok 659579094 telefona deitu eta bertan jasoko du informazio gehiago.

Auzoeta kiroldegian erreserbak martxan

Kurtso berria abian jartzera doan honetan, Auzoeta kiroldegia ere martxan jarri da. Urteroko legez, areto futboleko, pelotan,.... ibiltzeko erreserbak egin nahi dituen orok horretarako aukera badu. 943180384 telefonora deitu eta kiroldegiko arduradunarekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Dolza Barandiaran

13:30ean: Herri-kirol saioa: Aizkoran Aierbe II-Azurmendi / Arria V. - Iriarteren arteko norgehiagoka. Harri jasotzen Goenatxo II.aren erakustaldia.

19:30ean: Donato Goieneren perkusio taldearen emanaldia Zelai frontoian.

Ondoren: Ataungo artzainek eginiko gaztaien probaketa ardoaz lagundurik.



**RENAULT
LAZKAO
GARAJEA**

☎ 943 882 442 / 943 888 901
Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea **LAZKAO**

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: **943 88 86 20**
Tfno. mugikorra: **609 49 14 41**
Faxa: **943 88 91 18**
LAZKAO



Kultur astea

Behin oporrak bukatuta, irailaren bigarren asteburuan hasita, Kultur astea izango da irailaren 19ra arte. Aldizkaria

bukatzerako egitaraua osatu gabe bazegoen ere, zera aurreratuko dugu:

Irailaren 12an, jubilatuen

eguna izango da. Meza eta bazkaria izango dute herriko edadetuenek.

Astean zehar, berriz, hainbat hitzaldi izango da kultur etxean, 20.30ean.

Irailaren 19an azkenik, Nekazaritza Ekologikoaren

azoka izango da. Hamargarren edizioa izango du aurten-go. Goiz partean, herriko plazan izango da produktu ekologiko ezberdinak erosi eta dastatzeko aukera. Egurdian, ohi bezala, bazkaria izango da eta egunari amaiera emateko, erromeria.



Aerobic ikastaroa

Aerobic ikastaroa irailaren 6an hasiko da udal gimnasioan. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izango da, goizez 9:15etik 10:15era eta arratsalde, 20:30etik 21:30era. Prezioa: herrian erroldatuentzat 18 euro hilean eta ez errolda-

tuentzat 20 euro.

Ikastaroa egin nahi duena gimnasio bertara joan daiteke eta Anabelekin hitz egin, edo udaletxeko 943881434 telefono zenbakira deitu dezake.

Giro onean ospatu zen San Joan txiki

Abuztuaren 29an, igandea, giro onean ospatu zen San Joan txiki eguna. Egurdian, mezaren ondoren sokadantza, haiaiketakoa eta bertso saioa izan ziren. Arratsaldean, berriz, Kulki taldearen emanaldia, artzai txakur lehiaketa eta Idiazabal gazta dastaketa. Bezperan ere, larunbat gauean, jai giroa izan zen nagusi, herri afaria eta erromeriarekin.



Kizkitzako jaia irailaren 8an

Urtero bezala irailaren 8an izango da Kizkitzako jaia. Eguerdiko 12etan meza izan-

go da Kizkitzan. Egun osoan zehar Balzola anaiek trikiti-xarekin alaituko dute festa.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



**Jauregi
TOLDOAK**

BEASAIN

943 88 02 43 - 943 88 01 33



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua eta karta.

**MANDUBIKO BENTA
jatetxea**

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierrirako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73



Euskal Jaiek 100 urte

Azoka irailaren 8an izango da

Peri berezietan bereziena hemen dugu jada. Oporren bueltan aurtengoa bereziagoa gainera, euskal jaiek 100 urte

beteko baitituzte. Hau dela eta egitarau oparoa prestatu dute Udalak eta herriko hainbat erakunde eta elkartek.

Euskara ikastaroak AEK-n

Irailaren 6tik 23ra bitartean 04-05 ikasturterako matrikulak egiteko aukera izango da Goiztiri AEK euskaltegian. Euskara ikasi, EGA titulua eskuratu, HABEn mailen ziurtagiriak lortu edota euskara hobetu nahian bazabiltza ez galdu aukera. Ikastaroak irailaren 27an hasiko dira eta ohiko taldeez gain autoikaskuntza gela ere hor izango da tutore eta guzti.

Andra Mari kalean du egoitza Goiztiri AEK-k, Dorrea etxean postetxearen gainean hain zuzen. Matrikulatzeko bertara joan edota 943-889174 telefono zenbakira deitu besterik ez duzu, goizez edota arratsalde. Posta elektronikoaz ere baliatzen zitezke (beasain@aecknet.net).

Irailaren 2an hasi eta 12ra bitartean izango da zer ikusia herriko kaleetan. Honen guztiaren informazio zabala duzue erdialdeko orrialdeetan. Ez dira faltako bertso saio, peri berezi, odolki dastaketa, sukaldaritza lehiaketa, dantzariak, argazki rallya, kantu afaria, Lazkao Txiki Bertso-paper Lehiaketako sari bana-keta, jubilatuen eguna eta haurrentzako jolasak. Guztiak ere ehunurteko hau eus-

kal giroaz ospatzeko asmoz.

Urrira arteko ekitaldiak

Aurtengoa Euskal Jai berezia izango da, 100. urteurrena ospatzen dela eta. Astebete baino askoz ere gehiago izango da. Urrira arteko ekitaldiak prestatu dira. Erdiko orrialdeetan duzue egitarau osoa. Denaren, pixkanaka joango gara ekitaldiak zehazten.

Aitor Calvillo

Kantu afaria, irailaren 10ean

Bosgarren urtez euskal kantu tradizionalak abesteko aukera izango da Hitzaro Euskara Elkartearen eskutik. Kantu afari honen helburu nagusia lagun giroan elkartu eta euskal abestiak kantatzea izango da. 34 kantuz osatutako liburuska argitaratu dute oraingoan eta guztiak abesteko aukera izango da euskal jaien barruan irailaren 10ean, ostirala, iluntzeko 9etatik aurrera Enparantza Nagusian. Kantatzeaz gain otartekoak ere izango dira.

Bi euroren truke euskal kantuen liburuxka eta txorixo otartekoa eskuratuko ditu bertaratzen denak eta kupeletik nahi adina sagardo edateko aukera ere izango du. Iaz 400 laguntik gora elkartu ziren eta aurtengorako beste hainbeste be-

tzat espero dituzte Hitzarokoek.

Herriko hainbat koadrila eta erakundetako kideak igoko dira taula gainera liburuxkako kantuak abestera. Aurren, ordea, herritarrez gain izango dira bestelako protagonistak ere. Euskal Herriko Kantu Txapelketan parte hartutako Abalortz Olano zaldibiarra eta Lazkao Jon Barreiros hor izango dira. Baita Donostiako kantuz ikastaroko hainbat kide ere, iragan ekainaren 30ean eginiko kantu jiran parte hartu zuten bezalaxe.

Inork oraindik ere taula gainera igo eta liburuxkako kantaren bat abesterik nahiko balu Hitzarok duen bulego teknikora deitu besterik ez du (943162366).



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

Tel. 943 88 94 82

BEASAIN



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Ordiziako Tabernarien partetik

*Euskal Jai
zoriontsuak guztioi!*



**ETXETXO
TABERNA**



**OIANGU
TABERNA**



HERRIKOA TABERNA



**MIAMI
kafetegia**



Martínez
Jaietxea



**OLANO
TABERNA**

ALDASORO
Taberna - Jaietxea





Lierniko Andre Mari jaien atarian

Oporraldia amaitu da dagoe-neko askorentzat baina festa-rako gogoia duenarentzat oraindik geratzen da makina-txo bat tokitan ondo pasatze-ko aukera eta horietako bat da Mutiloko Liernin ditugunak.

Irailaren 5ean hasiko dira txirrindulari probarekin eta Lierniko Andre Mari egunean jarraituz, irailaren 12an izan-go dute amaiera. Lau egun izango dira ekintza desberdi-nez osatuta.

Egun hauetarako egitaraua honako hau izango da:

Irailak 5, igandea:

16:00etan: XXIII. Lierniko Txirrindulari probaren hasiera. Lierniko Txirrindulari elkartearen eskutik. Gazte mailako proba. Probak bi zati izango ditu, lehenengo zatian inguruko herrietatik 60 kilometroko ibilbidea egingo da eta bigarren proba erlojupekoa izango da Seguratik Lier-

nira bitartean.

Irailak 8, asteazkena:

11:30ean: Meza nagusia.

Egun osoan zehar: Erromeria Josu Albisu eta Aiora Gorostizaren eskutik.

Irailak 11, larunbata:

17:00etan: Jaiei hasiera emateko suziria eta kanpai jozteak.

17:30ean: Ume Jolasak. Pox-polo eta Mokolo pailazoak.

21:00etan: Auzo afaria, Patxi erretegia.

Ondoren: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak, goizaldera arte.

Irailak 12, igandea:

Goizeresia Segurako txistularien eskutik.

10:00etan: XXIII. pitxoi tiraketa. Mutiloko Aitz-buru elkarteak antolatuta.

12:30ean: Meza Nagusia.

13:15ean: Toka lehiaketa.

Eguerdie partean: Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariak.

18:30ean: Motozerraz egin-dako irudien erakusketa eta motozerraz irudiak egitea Ikusgarri taldearen eskutik.

Ondoren: Garikoitz Lizarra-

ga eta Iñaki Larrañaga trikitilarien eskutik erromeria.

Oharrak

- Tonbola izango da.
- Afarirako izena emateko Patxi Erretegia apuntatu.

Zeraien sagardo dastaketan

Zeraindarrek Mutiloko San Pedrotan sagardo egunean oinez egin zuten Zeraindik Mutilora arteko bidea eta mutiloarrok ere andramaritan, abuztuaren 14an oinez joan ginen Mutilotik Zeraina sagardo dastaketara. Oinez joandako eta beraien kotxetan joandakoen artean herritar multzo ederra elkartu zen Zeraingo plazan sagardoa probatzeko.

Ohitura onari eman zaio hasiera eta mantendu eta indartze-ko izan gaitezela datozen urteotan.

Arantzazurako erromesaldia

Aspaldiko urtetako ohiturari jarraituz, irailaren 4an mendiz egingo da Arantzazurako erromesaldia, goizeko 8etan herritik irten eta egun osoan zehar egingo da ibilaldia. Oinez joateko aukerarik ez dutenek hurrengo egunean joateko aukera izango dute.

Iñaki Ugalde

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN



Logela, egongela eta sukaldetako altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
× ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxe: 943 67 36 55

Giro herrikoia nagusi festetan

Festaz betetako oporraldia agurtu eta kurtso berrirako prest jarri du herria irailaren etorrerak. Andramaritako festa egun durunditsuak oraindik oroimenean keinuka, balioko ahal dute hain herri-giro jatorrean igarotako bizipenek lanerako itzulera goxatzen.

Behinola Gabirian izaten zen gaugiro jendetsu haren tamainarik gabe, egunean zeharreko ikuskizunek eraman zuten jai nagusietan urrezko domina, iragarrita zeuden ekintza guztiak arrakastaz ospatzeraino. Jan-edanaren usainak jendetza erakarri zuen, nola lehendabiziko aldiz egin zen patata tortila lehiaketara, hala ohiko bihurtu den sagardo eta txistor dastaketara ere, San Roke Txikitako plazako afari tradizionala ahaztu gabe. Zortzi bikoteren artean Jon Muruak eta Jon Aldanondok jendaurrean prestatutako arrautzopila gailendu zen.

Kirolak ere presentzia esanguratsua izan zuen festetan, pilota, herri-kirolak nahiz txirrindularitza nabarmenduz, guztiak ere bertako gazteen eta gazte izandakoen kastazko izerdiarekin aurrera aterakak. Adibide gisa hamalauko pilota partida ikusgarria aipatu, estelar bikainenetan adinako jokaldiekin Jokin Murua-Gorka Maiz bikotea Mikel Asurabarrena-Iñigo Igartzabal doi-doi -22 eta 21- nagusitu zitzaizkien. Edo Andramari eguerdiko txirrindu igoera herrikoia, Santa Marina egunean Aztirin irabazita zetorren Iñigo Andolari esprint estuan Felix Goiburuk lehen postua kendu zion, bere

hirugarren garaipena poltsikoratuz.

Gehiago ugari izan ziren antolatutako ekitaldi eta ikuskizunak, jende askoren lankidetzari esker mamituak. Horren jakitun, udaleko festa batzordeak esker onik benetakoena adierazi nahi die antolakuntzan, laguntzen nahiz parte hartzen ahalegina egin duten guztiei.

Labur-labur

- **Ura, zaborra eta estolderiaren zerga** irailaren 28 bitartean kobratuko da, aurtengo lehen sei hilabeteari dagokiona.
- **Futbol zelai ingurua hiritartzeko** eta aisialdi eremua eraikitzeko proiektuari udalak eman dio onespena. Erakusgai jarrita dago eta alegazioak aurkezteko epealdia 15 egunekoa da.
- **Herriko ostatua** irailaren 17 arte itxita egongo da, oporrak direla eta.
- Balentzategi herri eskolan irailaren 9an hasiko dute **ikas-turte berria**.
- Abuztuko etenaren ondoren **liburutegia martxan** izango da berriz irailaren 7tik aurrera, asteartero 4retatik 6etara.

Festetako proben eta lehiaketen emaitzak

Aztiri:

- Patata tortila onena: Baztarretxeko anaiena (uztailak 17).
- Motxorro-Aztiri txirrindu igoera: 1.Iñigo Andola, 2.Josu Deba, 3.Juanjo Igartzabal (uztailak 18).

Txakilikuatro:

- Auzoko helduenari urteko oroigarria Izar-txikiko Mariatxorentzat izendatu zen (abuztuak 9)

Gabiria:

- Patata tortila lehiaketa: 1.Jon Murua-Jon Aldanondo, 2.Eli Murua-Idoia Agirre (abuztuak 13)
- Gaztetxoaren arteko bi futbol neurketa burutu ziren abuztuaren 13an.
- Herriko pilotarien arteko partidak: Jokin Murua-Gorka Maiz 22, Mikel Asurabarrena-Iñigo Igartzabal 21; Iñigo Murua-Iban Maiz 22, Endika Igartzabal-Eñaut Asurabarrena 7 (abuztuak 14).
- Afizionatuen pilota partidako emaitza: 22-21.
- Txirrindu igoera: 1.Felix Goiburu (12'55"), 2.Iñigo Andola (2"-ra), 3. Jokin Matxinandarena (8"-ra), 4. Aitor Elozegi (41"-ra). (abuztuak 15)
- Bolatea: txapeldun orokorra Jose M. Etxebeste, herrikoa Migel Mujika (abuztuak 15-16); herri mailako tiraldia: 1.Segundo Aranburu, 2.Iñaki Oiarbide, 3.Migel Mujika, gazteetan Gorka Maiz (abuztuak 17).
- Toka: txapeldun orokorra Iñurri, herrikoa Joxe Maiz (abuztuak 15-16); herriko tiraldian: 1.Iñaki Maiz, 2.Santi Aramendi, 3.Joxe Antonio Elozegi, gazteetan Iñigo Igartzabal, emakumezkoetan Gema Izuzkiza (abuztuak 17).
- Tiragoma: 1.Aimar Maiz, 2.Mariano Aranburu, 3.Beñat Maiz, gazteetan Andoni Aldalur, nesketan Leire Aldalur.

Aimar Maiz

Dogma de Fe talde beasaindarrak 'Sueños' diskoa kaleratu du

Dogma De Fe talde beasaindarrak uztaillean kaleratu zuten 'Sueños' diskoa.

Beasaingo Koiote zaharrean aurkezpena egin ondoren harrapatu genituen.


Hau da kaleratu duten bigarren CD-a. "Lehenengoa ere estudio batean grabatutakoa bazen ere ez zen hain 'serioa' izan. Estudioan grabatu eta ondoren guk geuk kopiak etxean egin genituen. Prestatuta genituen abestiak entzuteko moduan eduki nahi genituen, adibidez, hainbat lehiaketetara bidaltzeko. Oraingoa Arkaitz Karraskok Idiazabalen duen Sound Source estudioan grabatu dugu, horretarako denbora gehiago hartu dugu, kopiak enpresa batean egin ditugu, azala eta liburuxka zaindu ditugu... Oraingoan dena landuagoa da. Aurrekoa, azken finean, maketa bat zen", diote teldekideek. Diskoaren azala eta kontrazala Madrilén bizi den Javier Tuñón beasaindarrarenak dira, bideo klipak eta pelikuletako dekorazioak egiten ditu eta aurretik Los Angelesen bizitakoa da.

Dena beraien kontura egin dute, "diskoetxe batek zure aldeko apustua egitea lehen zaila bazen, orain zailagoa. Adibidez, diskoetxe batetako

arduradunak esan zigun: 'nik ez dizuet esango zuen diskoa gustatu zaidan, baizik eta, salduko uden ala ez'. Ez dute arriskutzen".

Diskoa hainbat lekutan dago salgai: Beasainen, Koiote zaharrean eta, Potten eta Ordizian Leizean eta Ostadarrén. Saltoki hauez gain beraiek zuzenean ari dira saltzen.

7 abestiz osatutako diskoa da, denak gazteleraz. "Hori batez ere abeslariak ez eus-



kararik eta ez ingelerarik menperatzen ez duelako da". Letrak Jon eta Carlosen artean eginak dira eta musika den artean konposatzen dute.

"Musika ateratzen hasten gara eta Carlosek melodia bat jartzen du, ondoren denon artean osatzen dugu kantua", diote. Beraien estiloa definitzea ez zaie erraza iruditzen. Bost pertsona ezberdin dira eta bakoitzak bere gustuak ditu eta denen arteko nahasketa moduko bat egiten dute. "Norbaitek 'rock kurioso' bezala definitu zuen gure musika eta ez dago gaizki. Rock hitzaren esanahia gaur egun oso zabala da, baina, guk egiten duguna rocka da".

Dogma de Fe

2000. urte inguruan taldea entseiatzen ari zen eta Beasaingo Koioten kontzertua emateko izen bat aukeratu beharra zuten. Orduan erabaki zuten Dogma izena. Izen berdinarekin talde bat baino gehiago zegoela eta Dogma de Fe jartzea erabaki zuten.

Taldea 2000. urtean sortu zen eta hainbat aldaketa egon ondoren 2001az geroztik gaur egungo kideak ari dira. Koioten eman zuten lehen kontzertu hura ez dute ahazteko, "ikaragarria izan zen. Lagunek entseiuak ikusiak zituzten baina zuzenean ikusteko gogoz zeuden denak. Kontzertuan, taberna gainezka zegoen, errepertorio guztia bukatu eta jendeak gehiago eta gehiago eskatzen ziguten. Ordu erdia jo-



Josu Garcia, Carlos Perez, Iban Unamuno, Jon Barreros eta Aitor Markinez dira Dogma De Fe taldeko partaideak.

tzeko abestiak genituen prest eta bi ordu aritu ginen jotzen". Disko berriaren aurkezpena ere Koioten egin zuten uztailaren 9an eta hori ere oso ondo ateraz zen, "gainera errepertorio luzeagoa genuen".

Orain arte 30 kontzertu eman dituzte baina denak Goierri inguruan. Orain kanpora gehiago atera nahi dute, baina, ez da erraza ezagutaraztea. "Entseietan gehiago saiatzeko motibazioa dira kontzertuak, ez nagitzeko beharrezkoak dira".

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

943 88 87 02

BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

➔ Idiazabalgo Kale Nagusian, etxebizitza salgai. 100 m². 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta sukalde-ondoa. Bi balkoi, bat handia. Dena mobleztatua. 679333579.

➔ Itsasondan etxebizitza salgai. Egongela handia, 3 logela. Sukaldea eta bainugela berriztatuak. Mobleztatua. Balkoi handia. 30 m²ko garajea eta lursaila. 647431592.

➔ Zaldibian pisu berria salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Ganbara ere bai. Mobleztatua. 699761651.

errentan hartu

➔ Senar-emazte bikoite batek etxebizitza behar du alokairuan, Lazkaon edo Ataunen. 645719618.

elkarbanatzeko

➔ 3 pertsona behar dira Bilbon ikasle pisua osatzeko. 943187126 - 943884305.

➔ Eskoriatzan, ikasle pisua osatzeko bi pertsona behar ditugu. 620066490. 20:00etatik 21:30era deitu.

➔ Neska euskalduna, Gasteizen elkarbanatzeko pisu bila dabil. 699409200.

Garajeak

errentan eman

➔ Beasainen, Igartza auzoan, Usategi kalean, 2 autoentzako garaje itxia alokatzen da. 600329197.

Negozioak

errentan eman

➔ Ordizian harategia alokatzen da, Kale Nagusian. Funtzionamenduan dago. 619327557.

Animaliak

salgai

➔ Rottweiler arrazako txarkumeak salgai. Pedegree onarekin. Prezio onean. 943160377.

➔ Aharia salgai. 943885102.

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Vectra 1.7 TD salgai. Aire egokitua, abs, irrati cd-a. 8 urtekoa. Egoera onean. Beti garajejan egona. 669239195.

➔ Seat Ibiza Disco 1,5 salgai. SS-AH matrikula. 400 euro. 628264441.

➔ Mercedes Vito salgai. 2.2 cc, 122 zaldi, 112 cdi. 2002. urtekoa. 32.000 km. 609853713.

➔ Moncayo Alhambra-430 autokarabana salgai. 5 lagunentzat. Egoera onean. Komuna eta sukaldea erabili gabeak. Osagarri guztiekin. Beti garajejan egona. 669239195.

➔ Opel Vectra, gasolina, salgai. SS-AZ. Egoera onean. 943801168.

➔ Opel Vectra 2.0 GT salgai. 1994. urtekoa. Aire egokitua, llantak, elurretako gupilak eta gaineko barrak. Egoera onean. 617128654.

➔ Peugeot 206 XR 1.4 modeloa salgai. 5 atekoa. 2001. urtekoa. 85.000 km. 680686518.

➔ CI Mizard C1-130 Capuchina modeloko Fiat 1.9 TD autokarabana salgai. SS-Au. 40.000 km. Toldoa, TV antena. 5 lagun ibiltzeko. 6 loleku. 609029559.

➔ Peugeot 309 diesela salgai. 1.360 euro. Ne-goziagarriak. 696999128.

➔ Peugeot 406 HDI-SVDT salgai. 2000. urtea. 74.000 km. Zilar kolorekoa. Eserleku elektrikoak. 6 cd kargagailua. Oso egoera onean. 628205040.

➔ Ford Scort turbo diesela salgai. 1.900 motorrarekin. 636635788.

➔ Renault 19 salgai. 16 v. Egoera onean. 618254960.

Bestelakoak

salgai

➔ Sutarako pago egur lehorra salgai. Edozein neurritara moztua. Etxera eramango dizugu. 615755762.

➔ Errepideko txirrin-dua salgai. Zeus markakoa. 943806123.

➔ Play satation 2 salgai. 2 memory stick eta 2 mando analogiko. 30 joko berriekin. Prezio oso interesgarria. 628264441.

➔ Samsung markako ekipoa salgai. Hiru cd-rentzako tokia, kasetentzako bi pletina, irrati eta mandoa. Altzaria aukeran. Berriak eta gutxi erabiliak. 943884631 - 680174076.

➔ Bi piragua salgai, Omei Chaman markakoak. Osagarriekin. 300 euro bakoitzak. 639004948.

➔ Enpaketadora salgai, Beatel markakoa. 696999128.

➔ Egurrezko sehaska, mahaiari eransten zaion aulkia eta kotxeko aulkia salgai. 670422051.

➔ Sarrerako atea salgai. Blindatua. Estreintu gabea. 943800078.

➔ Mitchubishi Montero 3.2 DID modelo berriaren defentsa orijinala eta homologatua salgai. Berria eta estreintu gabea. 943880675.

Lana

eskaerak

➔ Buzoneatzaileak behar dira Goierrin. 943304308.

➔ Urrats Akademiak irakasleak behar ditu: ingenieritza, fisika, matematika... 670562800.

➔ Neska bat behar da dendari lana egiteko Beasainen. Urte guztirako lana eskaintzen da. 943885500.

➔ Neska euskalduna behar da Beasaingo taberna baterako, orduka lan egiteko. 616698236.

➔ Irailetik aurrera erretegi batean lan egiteko zerbitzaria behar da. Larunbat gauetan eta igande batzuetan. 615700408.

eskaintzak

➔ Emakumezkoak prest, autoaren jabeak, garbiketarak egiteko: elkartek, atariak, eskailera, lokalak... 605724457.

➔ 19 urteko mutilak peoi bezala lan egingo luke, behar denean. Gida baimenarekin. 685711303 - 943085508.

➔ 23 urteko neska euskalduna prest dago dendari lana egiteko, Beasainen. 615746473. Uxue.

ZINEA

BEASAIN:

'Spiderman'.

Ostirala 3: 22:15.

Larunbata 4: 19:30-22:15.

Igandea 5: 19:30-22:15.

Astelehena 6: 19:30-22:15.

bertsoak

ATAUN:

Irailak 3, Bertso bazkaria, San Gregorion, Jose Agirre eta Jokin Urangarekin.

BEASAIN:

Irailak 5, Sebastian Lizaso eta Mikel Mendizabal, egun osoan, Usurben.

ORDIZIA:

Irailak 4, 'Ordizia Euskal Jaiak 1904-2004' bertso jaialdia, Aitor Mendiluze, Alaitz Sarasola, Aitor Sarriegi, Mikel Mendizabal eta Jon Maiarekin. 22:15ean, Herri Antzokian.

dantzak

BEASAIN:

Irailak 12, Euskal dantza jaialdia, 18:00etan, Igartzako jaietan.

ORDIZIA:

Irailak 8, Alkartasuna-Ohiaka taldearen euskal dantza saioa, kaskoan, 19:00etan.

Irailak 11, Beasaingo Aurtzaka dantza taldearen saioa, 22:30ean, Plaza Nagusian.

antzerkia

BEASAIN:

Irailak 10, Pikor taldearen 'Al fondo a la derecha', 22:30ean. Igartza auzoko jaietan.

musika

BEASAIN:

Irailak 10, Rock kontzertua, 24:00etan, Igartzako jaietan.

Irailak 11, Trakets, 23:30ean, Igartzako jaietan.

MUTILOA:

Irailak 8, Josu Albisu eta Aiora Gorostizaren eskutik, erromeria egun osoan, Liernin.

Irailak 11, Andonegi eta Ostolaza trikitilariak, goizaldera arte, Liernin.

Irailak 12, Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariekin erromeria, arratsaldean, Liernin.

hitzaldiak

ORDIZIA:

Irailak 10, Pedro Manterolaren (Oteiza Katedraren zuzendaria eta Oteizaren etxe-museoaren zuzendaria) hitzaldia, Barreran, 19:00etan.

pailazoak

MUTILOA:

Irailak 11, Liernin, Poxpolo eta Mokolo pailazoak, 17:30ean.

erakusketak

BEASAIN:

Azarora arte, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Igartza jauregian.

ORDIZIA:

Irailaren 3tik urriaren 29ra arte, Koldobika Jauregi eskultugilearen erakusketa, Barrenan.

Irailaren 12ra arte, Ehunate Arte Taldeak antolatutako Goierriko artisten erakusketa, Sanperio kalean.

Irailaren 9an hasita, Barrena jauregiko kutxen erakusketa iraunkorra, Barrenan.

Kutxaren ikastaroak Goierriin

Kutxak hainbat ikastaro edo jarduera antolatu ditu Goierriin, 2004ko azken hiruhilekorako. Kultura eta astialdi-ekintzak dira. **Irudiaren tratamendua Photoshop bidez (gazteentzat euskaraz)**: Beasainen, urriaren 18an hasita. **Gabonetako sukaldaritza**: Beasainen, urriaren 20an hasita. **Tai Chi Chuan**: Beasainen, urriaren 14an hasita. **Antzerki tailerra**: Legazpin, urriaren 13an hasita. **Aretoko dantzak-latinoak**: Ordizian, urriaren 16an hasita. **Argazkigintza**: Zumarragan, urriaren 20an hasita. **Miniaturazko sukaldaritza, pintxoak**: Urretxun, urriaren 27an hasita. Izen ematea, irailak 20 baino lehen egin behar da, www.begira.com helbidean.

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi 15, behe

Tel.: 943 086 420

J.M. Iturriotz, z/g

BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net

ikastetnik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5

943 160 120

Beasain

Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta
tratamendua

- Test-ak, Frogak
- Tailerrak

Ehunate Arte Taldeak antolatuta Goierriko artisten 'Gorputza eta arkitektura' erakusketa

Ehunate Arte Taldeak ere parte hartuko du Ordiziako Euskal Jaiei mendeurreneko ekitaldietan. Ehunate, artea, estetika eta kulturaren alorrean lanean ari den kolektiboa da eta Goierriko hainbat artisten lanen erakusketa antolatu du oraingoan. Eburne Imaz, Maider Urretabizkaia, Mareu Apalategi, Maddalen Sarasola, Nerea Hernandez, Paula Garaialde, Patxi Morales, Patxi Epelde, Jesus Lopez Zulueta, Javier Soto, J.M. Telleria, Josetxo Begiristain eta Jokin Telleriaren lanak 'Gorputza eta arkitektura' izeneko erakusketan bilduko dira. Sanperio kalean, kokatu dute erakusketa, irailaren 12ra arte. Astegunetan, 18:00etatik 20:00etara egongo da irekita eta asteburuetan 11:00etatik 13:00etara. Irailaren 8an, asteazkenean, goiz eta arratsaldean egongo da irekita. Irailaren 7an, 18:00etan, 'Erakuskustaren irakurketa' izango da Maddalen Sarasolaren eskutik.

Oteiza katedraren zuzendaria eta Oteizaren etxe-museoaren zuzendaria den Pedro Manterolak, 'Gorputza eta arkitektura' gaiari buruzko hitzaldia eskainiko du irailaren 10ean

Ekintza osagarriak

Beste hainbat ekintza ere antolatu ditu Ehunatek. Irailaren 10ean, Oteiza katedraren zuzendaria eta Oteizaren etxe-museoaren zuzendaria den Pedro Manterolak, 'Gorputza eta arkitektura' gaiari buruzko hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, Barrena kultur etxean. Egun berean, gaueko 9ak aldean, 'El cielo sobre Berlin' filma ikusteko aukera izango da, Barrenan bertan.

'Bibliaren Astea' Beasainen 'Euskal praise' cd-a aurkeztuko da

Beasaingo Eliza Ebanjelikoak, 'Bibliaren Astea' antolatu du irailaren 10etik 18ra bitartean. Jarraian duzue egitaraua:

Irailak 10, ostirala: Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan, Bibliari buruzko erakusketak irekiko da 19:00etan. Ordutegia: astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara eta

igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Irailak 13, astelehena: 'Biblia nola iristen zaigu' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

Irailak 15, asteazkena: 'Jesus, ezagutu nahi zenuen gizona' bideo proiektzioa, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

Irailak 17, ostirala: 'Biblia euskarara itzulpenaren historia' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

Irailak 18, larunbata: 'Euskal Praise', Euskarazko 1. gospel musika diskoaren aurkezpen kontzertua, Usurbe Antzokian, 12:00etan.

Irailak 18, larunbata: 'Maratoi Biblikoa', Loinazko San Martin plazan, 17:00etan.



GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Irailak 4-5: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Irailak 11-12: Jauregi

(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.

ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

UDA 2004

TALDE TXIKIAK

- ✓ Banakako atentzioa
- ✓ Ordutegi zabalak
- ✓ Ikasgai guztiak
- ✓ Irakaslego trebatua

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduloak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila

2004-2005 ikasturtea. Hasiera: irailaren 6a.

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Marrazketa
- ✓ Teknologia

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
- ✓ Kontsultak
- ✓ Internet

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku



Ordiziako santaneroak 1917an

1917ko uztailaren 27an ateratako argazkia da goikoa. Argazkia hain zaharra izanik bertan dauden santaneroetatik bien ize-na bakarrik jakitea lortu dugu: Constancio Cano eta Encarna Rodriguez.

LUBERRI
Loradenda

- ✓ Landareak
- ✓ Lora sortak
- ✓ Ezkontza prestakuntzak
- ✓ Opariak

Euskal jai zoriontsuak!
J.M. Barandiaran, 3 ☎ 943 16 04 79 **ORDIZIA**

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegi
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

ORDIZIA
BIDEO
KLUBA

☎ 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1 **ORDIZIA**

GOIZTIRI  **EUSKALTEGIA**

2004-2005 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK	MATRIKULA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsalde eta gauez	Irailean goizez eta arratsalde	Sakontze Euskalduntze Alfabetatze EGA: deialdi itxirako aukera

Autoikaskuntza gela
HABEko mailen tituloa
lortzeko aukera

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO
ORDIZIA: Santa Maria 4 - 2.ezkerra ☎ 943 88 91 74
BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40
beasain@aeknet.net

Udalek ikasleei matrikula subentzionatuko diete.


MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA



SMC

ERABATEKO
GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT
H O R T Z
ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN
KLINIKA
INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK
INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta,
zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo
batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz,
dentistarekiko zure ikuspegia aitatuko dugu.

Gure zentrua, behar guztiak asetzeko
erabat horniturik dago; elbarrituventzako
guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi
eta zure ongizatea lortzeko behar diren
guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi**
aurreratuena zure esku jarritz, gure
lan talde espezializatuak norbanako
tratamendu egokienaz landuko ditu
zure beharrak, bai **implantologi**, **estetika**
edota zirugi mailan.

Erabateko hortz klinika integratua.



KOL 2001 MAY 1991 144/02
TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



ARGI
OPTIKA

- > Doako audiometriak
- > Doako begi tentsioaren hartzea
- > Kontaktu leenteen egokitzea
- > Ikusmen azterketa orokorra

Nafarroa Etorbidea, 14
T 943 883 110
20200 Beasain



o s k a r b i
oinetakoak

O



2

ordizia

beasain

zumarraga

arrasate